


POESIA, BERE GORDINEAN

Xabier Galarreta



Lege-Gordailua: 1140/2010

Barne-bizitza, poesiaren muina...

Eurekin garamatzaten trenak

Hitzak beztitu ditut eta egun bat
alferrik dut galdu;
bidaia hau ez doa aurrera,
soilik hartaz dudan
oroitzapena.
Sufritzearen ostean,
indiferentzia;
eta honen joanean,
logura eta ametsak.
Begi zabalekiko loa:
pentsamenduen esna-aldiari
emana, lo dagoena.
Bidaia aurrera doa beti,
bere motelean.
Halako batean, trenak dagi txistu,
eta hurrek oihu,
alaitsu.
Mugimenduari bizkar emanda,
zoladuratik eskegitako
erlojuari beha,
zut,
“hamarrak eta bost”, diot neure artean,
edo ametsetan (ez dakit),
eta trena badoa eta ni harekin batera,
geldi-geldi bertan
–barne-arrakala sakona dudan
nire betiereko ezerezerantz,
zeinetatik isurtzen naizen,
gorpu-sentsazio hutsean–.

[2008ko abendua]

Urteak galtzearen axolarik eza

Ertz-kanpora botako nauzu,
zurrunbiloaren erdira;
bat ez etortzearen gatibu,
zure beira-eskultura apurtuko duzu
nire begitar-tean.

Eta ohartzen garenerako
bi arrotz izango gara *in the night*.
Ertzaren erdira botako zaitut eta
ertzaren ertzetik behatuko dut
nola desagertzen zaren,
horren modu bitxian,
zurrunbiloan jira-biraka,
egunak eta urteak irentsita,
izaten hasi baino lehenagoko egun eta urte iragan
guzti horietan.

Eskua luzatzen ala ez pentsatuko dut,
zuk ere berdin.

Baina ez dugu deus egingo,
ezta mugimendu bakarra ere.
Asper eta hotz begira ariko gara
zurrunbiloak zelan irensten duen zure oroitzapena nitaz
eta nire oroitzapena zutaz.
Eta gure begiek sumatuko dute
malkoen epeltasuna.
Tipula negarrak egingo ditugu.

[2008ko abendua]

Matxinadarako deia

Birinduta zaudenean,
besaulkiarekin urtuta,
bizitza lan-pilo
bihurtu delarik,
eskua jasotzen duzu
eta berriz uzten duzu erortzen
(matxinada-ekintza
irrigarria!).

Lau hizkik harrapatu zaituzte
–baliteke bi hizki eta erdi
besterik ez izatea–,
eta kaierako orriak lurrean dira sakabanatuta, hutsik barrutikan;
eta abezedea badirudi
hil-hurren dela
(mortifikazio-ajea!).

Zure arima,
antigoaleko momia bat.

Urteak,
oi zeinen astunak,
pottoloak eta ahittuak!
Oroitzapenak ere
atera zaizkigu ihesean.
Trepetak baino ez dira geratu,
zure iraganaren aztarnak eta
hondarrak hasten diren zuloan.

Bizitzako ekuatoreak
bere agerraldia egin du
eta Diru Jaunak bere begitarterik
zitalena, litxareroena,
erakusten digu.
Arrenkura, behintzat,
gelditzen zaigu.

[2008ko abendua]

Hilezkortasunaren ataka gaiztoan

Bizitza oso bat hilezkortasunaren
irrikitan,
nahiko izango ez bagenu bezala
geure hilgarritasunaz.
Tximinoagandik gatzela jakingo ez banu,
sinetsiko nuke nekez.
Hilezkortasuna da dena ixtea,
irrikarik gehiago ez izatea
ez ezerena ez inorena.
Diotenez, bizitza eroso
berez helburu bat da.
Ez dut esango baietz,
ezta ezetz ere
(erabakiak hartzea, burgesentzat).
Helburua berez bizitza erosoari
loturik ez dagoela besterik ez diot,
baina...
Hilezkortasuna nor zaren betiko gogoratzea da, eta ez dut uste
munduan
hori desio duen lerdorik egongo denik.
Hilezkortasuna leiho bat da
zeinen atzean Neskak titia ematen dion
jaioberriari,
haurrak eskolara doazen bitartean.
Leiho hori, kanpotik barrura
eta barrutik kanpora,
berez, halako helburu bat da
[osatzen du], edo hobeto esanda,
hilezkortasun bat da.
Zerbait genekiela uste izan genuen...

[2008ko abendua]

Bilakatzearen zentzugabekeria

Orain dela unetxo bat
dena
azaltzeko itzaropena
zeneukan.
Eta hortxe
hain zuzen sumatzen duzunean
erregaia nola agortzen den,
galdera guztien
GALDERA
sortzen da:
“Eta honek, nolako piura hartuko du
hebraitarren mintzoan?”
Gure unibertso gizen honek
hedatu eta hedatu egin duen
ahalegin horixe da
guk geurekin
saiatu duguna.
Eta horra hor emaitza:
hilobi ñimiño bat
–ametsen labirintoaren
ate sekretua–,
non Espazio
osoa tematzen baita
orain batera eta gero bestera.

[2008ko abendua]

Nobel sarien distira eta mixeria

Lurra,
zein ederki ongarriztatuta geratzen den
gerra on baten ondoren!
Arrosak, krabelinak edo
patata zaharrak erein ditzakezu lasai.
Berdin dio,
dena loratzen da-eta
–prostituzioa
pobrezian bezala–.
Bigarren Mundu Gerraren ostean,
nekazaritza-ekoizpenek
kotizatu zuten burtsan;
Ez hainbeste, ordea, I. Gerran,
–intsektizida larregiren erabilera–
(eskerrak aurretik ez zen beste gerrarik izan!).
Errima gutxi, jaun-andreok,
hitzontzi maitagarriok,
errima gutxi du honek.
Kaka zaharra!
Zorionez, ez naiz saiatu
soneto batekin bazterrak izorratzen!
(majo botako nukeen izerdia...).

Lurra,
baina zer ederki ongarriztatuta geratzen den
gerra on baten ondoren.
Izango dugu beta asmo oneko berbetarako
eta adierazpen sakonetarako:
“Ez dadila berriro horrelakorik gerta”,
esango du Sendiak,
hegazti harraparietan abilak,
askotxo daki-eta minaz
eta errazimo-leherkariaz,
Alkimia Nobelaren kariaz
bere lehen hitzaldia
eskainiko duen aldian
-malkotxo baten trukean
pare bat mandarina...

[2008ko abendua]

Espirituaren transhumantzia

Denbora,
haragi-injerto huts, igaroan beti;
eta atzera begiratzen duzunerako,
joana da.

Denbora,
oraindik badauzkagun
oroitzapen guztien
ausentzian
birrinduta erortzen den galdera.

Denbora
azeri bat da
eta lurreko joritasunean
uzkurturik, erne dago
lehenago edo beranduago
iritsiko zaion
aukeraren zain.

Denborak zuzi bat
jaurtitzen du
azken ekitaldi gisa,
iluntasunera daraman
bide-zidorra argitzeko
adinakoa.

Denbora,
gutaz daukagun
oroitzapen zirriborrotsua.

(2008ko abendua)

Inaugurazio-ekitaldia

Mundua noizbait
amaitzekoa zela
zen gauza jakina.
Nork sinetsi, baina?
“Eguzkia, ezta Iberdrolak ere
du bere mendean.”
–Horrexegatik, kaikua :
inork ordaintzen ez duenez,
datozkigu kentzera–.
Krisialdiak
Unibertsoari ere
dio eragiten.
Nahiz-eta,
funtsean,
“nori axola
Itzalaldi Handiak?”
*Gure Planetan argia
itzaliko da
eta zeruan izar berri bat
dirdirka hasiko da.*
Horrela, estetika patetiko
eta zantar horrekin
inauguratzen dira
XXI. mendeko Zabortegiak.

(2008ko abendua)

Adioen jolasa

Galera amaigabea,
pirrika, etengabe doa itzuleraren itzala,
egitez eta pentsamenduz
hautsita uzten gaituena.
Gutaz hainbeste espero
eta hain gutxi jaso zutenak
–sarri-askotan
gure erdeinua–
ez dira gurekin jada.
Hitz larrien ordua
zimeltzen hasia da
eta buruturiko gertaeren
egonezina, besterik ez da.
Haren oroitzapena pirrika doa
gau ilunean,
pirrika urrikirik gabe
haren urruntasuna.
Geure ahantziraino
atzetik ibiliko zaigun
ahantzi gupidagabea
katramilatzen zaigu
begirada.
Sua amatatu da,
isiltasuna haren aulkian
eseri da,
ohe-estalkiak ez du haren gorputz
oinazeztatua gehiago berotuko.
Argia itzaltzen dut,
banoa,
eta atea ixten dut
jakinik zer alferrikakoa den
atzerantz begiratzea
azkeneko aldiz
balitz ere.

(2008ko abendua)

Eskaintza

Nire azken argitalpena eskaintzen diot
nire lehen irakurleari;
edo oraindik hobeto:
nire lehen argitalpena eskaintzen diot
nire azken irakurleari;
edota, are hobeto:
nire azken irakurlea eskaintzen diot
nire lehen argitalpenari;
areago, estutzen banaute,
esango dut eskaintzen dudala nire lehen irakurlea nire azken argitalpenari.
Baina, noski,
gauzak ondo pentsatuz gero,
ez diot inori eskaintzen
ez nire lehen argitalpena
ez nire azken irakurlea
ez nire azken argitalpena
ez nire lehen irakurlea.
Izorra dadila mundu guztia!

(2008ko abendua)

Jeyper olerki-pila

Kubilete bat bete alexandrotar bertso,
eta berriro ere nire txanda
–iruzurti-barrabil-huts halakoa!–;
Txanda pasa eta hogeita bat zeramatzat,
niri orain
–ez abusatu, txerri horrek!–.
Niri orain!
Urde zikin alua!
Txerrietan txerriena haiz hi!
Hago isilik, litxarrero!
Nire txanda dela zioat!!
Hire txanda dela eta ez dela, ez ukitu ni!!!
Joer...
Tira, noren txanda da orain?
Ni ez naik ukitzen txerri alu honek,
ez horixe !!!
Joer...
Bi eraman eta hogeita bat utzi.
Galdu haiz...
Bai, hala egokitu zaidak.
Inporta ez zaihalako izango da!!!
Hiri.
Baita hire barrabilei ere.
Ez izan ergela.
Antigoaleko kaikua
ematen duk hik.
“Mazapanak lau haizetara” edo
“buñueloak aire zabalean”, berdintsu...
Isilduko al zarete behingoz, kaguenlaputa!!
Tango itxura hartzen dik guzti honek...

(2008ko abendua)

Inorenak ez diren begiak

Begiek beren buruorratz hotza
iltzatzen dute nire begiradan;
gatz-begiak,
apurtuak...
Begiak ez dira inorenak
eta guztionak dira;
begi nakar-laranjatuak,
Verdi-zuriak, okel-minak...
Begi ahaztuak,
nahita jaurkita
gure begietatik at.
Soak bote egiten du kristalean
eta begiak zauritzen ditu,
zeinek minduta,
ikaratuta,
sabaiko bazter urrun batera
egiten baitute hegan.
Marmeladazko begiak,
“urdaiazpiko eta gazta” begiak,
“ogia tomatearekin” begiak;
beranduegi dela dioten
begiak.
Itzali argia,
itxi begiak –ahal baduzu–
eta egizu lo.
Egun bat gutxiago
(hobe denontzako).

(2008ko abendua)

Izan ez ginenari gorazarrea

Bertso bat idatz dezakegu
izan ginen ezerezaren omenez,
edo, agian,
izan garen ezerezaren
arrastoaren omenez.
Bertsoz bapo jar gaitezke,
eta sinetsi halaxe lortuko dugula
izan garen ezereza
biltzen duen ontzia mukuru betetzea
(iratzargailua hoska hasten denetik,
atzo izan ginena –igarotako ordu piloa– gogoratzen saiatzen garenetik,
noranahi jarraitzen digun ezereza,
halabeharrezko ezerez hori bera).
Eta bertsoz zenbat eta bapoago
egon,
orduan eta handiagoa barruan daukagun
espazio hutsa.
Eta une bat iritsiko da non
ontzia lehertu egingo baita (gainezka egingo du)
ontzi apal eta bikain batek zentzuz jasan (eduki) dezakeen zentzuzko Ezerez-kopurua
gaindituko duelako.
Azkenean, badirudi,
gakoak horiek direla:
ezereza... zentzuzkoa eta... hustasuna.

(2008ko abendua)

Iragandako udak utzitako islak

Uda,
kaletik behera jaisten dena
harea eta su artean;
bizitza guztietako bizitza honetan
zurezko atea kolpatzen dituen;
udaberri bukaera bakoitzean berriz hasten dena eta oihu luze eta bigun batekin
bazter gelditzen dena,
eri eta misteriotsu.

Uda,
argia itsaso amaigabeen nola itzaltzen den begira dagoena,
antzinako mito galduak zeharkatzen dituen haien izenak aletuz bezela:
Grezia, Minotauroa edo Helena ontasunez betea.

Uda,
milaka mendetako
bere urteroko mugara
atzera egiten duena;
bere unibertso hilezkorrean harrapatzen gaituena, zeruaren eta lurraren artean,
miresgarri, emakume gazte eta eder
baten antzean.

Bilaketa guztiez harantzago,
Egipto eta Bizantzio eta Alejandria guztiez harantzago,
inora ere irteten ez den leku alderantz bueltatuta lo egiten duen
ospe txarreko animalia baten antzera,
basamortua hasten den leku berean.

(2008ko abendua)

Gabonetako oroitzapen lausoak

Gabon-gaua. Ideia batean geldi gaude.
Zerbait urruna izan ginen eta orain
gure burua berridazten saiatzen gara,
badaezpadako arrakastarekin.
Hondarretik tiraka,
erdi-abandonatuta zeuden
oroitzapenen diferentzialarekin
egiten dugu topo,
hortxe, iragan unipertsonalean, iragan hurbil-urrunean (irudi hutsalen jauzia).
Gabon-kantak, jaiotzak, turroiak, famili afariak eta bazkariak...
Oroimenak bide egiten du laino-egunak urratuz, eta nostalgia bihurtuta
iristen da gugana,
ziur aski bere garaian preziatzen jakin ez genituen egunetako nostalgia
(eta nor ote zen hainbeste jakiteko gauza?)
Ahantziak bere legea ezartzen du
eta tradizioek musu ematen diote lurrari,
bolo jokoan bezala, kolpe eder batez.
Urteen nekea geratzen zaigu,
itsuka ibilitako espazioarena,
noizbait nonbait suertatu zitzaizkigun geltokietako bakoitzean utzi behar izan genituen
mixeria apalak gogoan,
igaroz beti.
Olentzero, misteriotsu, lainotik sortzen
eta antzinako nobleziaren mitologia eraisten (Errege Magoak!).
Eguberri guztietan gelditzen gara
ibilitako distantziaren xuxurla entzuten,
heldu inora helduko ez bagara ere;
Gabonetako Espiritua, ia-ia probintzianoa,
beharbada palurdoa eta guzti: goazen zurekin beste behin, eta egunen batean zuk ere
ilunean galdu beharko bazina,
egizu ausardiaz eta bihotz-zimikorik gabe.
Gabon-gaua, labana bezain hotza...

(2008ko abendua)

Oroitzeko gai naizen artean

Oroitzapenetan blai, kaleetan
jada iraungita dagoen oroitzapen baten arrastoari jarraiki egiten duzu aurrera.
Oroimenaren mugetan preso,
betiereko gaua betiereko iragatean
erbesteratua, gomuta hura...
Maitasun motelak;
edota azkar kiskali gintuztenak...
denak suntsituta orain, Borrero gupidagabearen eskuetan: Denborarenetan.
Muruak gero eta altuago doaz altxatuz,
haien eta gure arteko distantzia
murriztu ahala.
Haurrak orain dela asko utzi zion izateari
(edo beharbada ez...?).
Eguzkia joana. Amuarrainak jauzten urmaelean. Euria erortzen poztasunik gabe... Eta
dorre altuak dardarka.

(2008ko abendua)

Gaua amildu baino lehen

Garai baten lekukotza,
norberarena edota
Ezerezera zigorturiko
gizarte oso batena,
Isiltasunaren aurrean
jira eta bira diharduen
Kolore Anitzeko Karrusela,
Eternoa. Gauzak lekuz aldatzea
da egin dezakegun guztia
Infinitura begira,
Desagertze Hilezkorreko Erritoaren aurrean amore eman baino lehen.
Lucienek bere ontasuna azaltzen du,
Heraklitok bere pentsamendua,
eta gainerakook... aski dugu geure ametsetako ihesaldia aditzera ematen.
Mundu osoko hondartzen gainean
harea lo orain,
deabru-dantzari emanda gero,
eta zurrunbiloen oinean,
gu, esku bat jasota agur moduan,
aurpegi-zirriborratsu,
gure giza kondizio kaxkarraren lekuko,
etsita eta jostari,
halako estuasun bat
eztarriko zulotik pasatu ezinean.

(2008ko abendua)

Lore bat baino ez

Bipil, lorea eraso egiten
haizeari;
aurre egiten dio, erronka eta
aupia egiten dio.
Bipil, lorea amildegian,
kaskarin, ausarti,
patuaren aurrean ezaxolati,
bere lau erroetatik zintzilik,
hustasunari eta ezerezari irriz.
Hodeiek uholdea jaurtitzen diote
(loreak zut dirau ordea);
itsasoak kolpatzen du
enbata basatien zartailu
txistukariaz:
lorea ez da kikiltzen ordea;
tximistak alferrik du
zerua pizten bere amorrazioaz
eta suaz,
eta trumoiak bere granito
eta burdinazko ahotsa du altxatzen:
lorea, berriz, kulunka, ezaxolaz.
Horrelakoak dira
beren zentzuaz
oharkabean igarotzen direnen
patuak, beren garrantzirik ezan sentitzen direla fikziozko amets baten jabeak,
non bat baitatoz ametsak eta errealitatea:
halabeharrezko zerbaiten zati direla sinestarazten dien opio gezur-igarle trebea.

(2008ko abendua)

Ahantzuraren argia

Argi menderatua,
iheskorra,
argi ezazu gaur gure historia,
gure erokeria itxuragabeak.
Argi miresgarri,
berez irrealak:
eskainiezaguzuzen zeure keinua
beste behin,
ahantziak betiko
berekineraman gaitzant baino lehen.
Denboretako argia,
historiaurreko isiltasunetako argia,
geroko belaunaldietako argia,
lurrik gabekoena;
bidegabekeria, abandonua
eta erabateko premia
soilik ezagutu zituztenena.
Mendebaldeko argia, zaurikor, desleiala...

(2008ko abendua)

Errauts arteko udazkena

Udazkenak zuzen-zuzen
erakusten digu
hondamendien etxera
daraman bidea.
Garaietan barrena nabigatuz,
lur arrotz batera iritsi arte:
zenbat porrot, zenbat ilusio...
arrakasta bat edo beste agian,
baikorra izaten dakienarentzat.
Baina, oro har, den-dena da
salbuespena,
eta beharrezkoa zaigu berriz ere
gauzak hutsetik ikasten
hastea
–inork ez dio ihes egiten
bere patuari–.
Azken finean, Platon eta Jainkoa
hilak dira
eta dakigun guztia da
lehena benetan bizi izan zela.
Ez dut esango, halere,
bigarrena dela halako iruzur bat.
Bizitzak... ez digu
luzaro iraungo, dudarik gabe.
Egin ditzagun fardelak
eta abia gaitezen, beraz,
mundu hobe baten bila edo,
sikiera,
itxaropen handiago baten
peskizan.

(2008ko abendua)

Paris, asko maite genuen emakume bat

Paris berriro irabaziko dut
egunen batean,
Parisko argia eta Parisko kaleak
berriro irabaziko ditut
egunen batean,
hain ikaragarriro galdu dudan
hori guztia,
Paris urruna, gaztaroko egunetakoa,
gaur egungo arrunkekin
zerikusirik gabea,
Paris purua eta gardena,
bisitari bat besterik ez nintzenean,
bertan geratuko nintzela
amesten nuenekoan,
Paris, neguko hotzean
ezagutu ez nuen Paris hura,
ce que je admire le plus au monde,
hareatza eta pinudiak gorroto dituen Paris huraxe, betikoa, kaleen ordez
labirintoak eskaintzen zizkidana.
Paris mitikoa, gure aurretik bizi arazten gintuena,
Paris, nire buruan etengabe entzuten nuen harrabots hura,
zerbait jakiteko esperantza ematen ziguna,
Paris, kontuan hartzeko sakrifizioak
eskatzen zizkiguna,
Paris, zoragarri tragikoa, bere baldosa eta bere eskailera guztiekin,
plaza txikiz betea, ezezaguna,
sorpresa baten ondoren beste bat gordetzen ziguna,
errito motel baten antzean sentitzen genuena, kalean ibiltzen, kafe bat hartzen,
Paris, gure oinetakoetan grabatuta
generamana... egun batean oinutsik
esnatu ginen arte.

(2009ko urtarrila)

Pentsatzearen (des)abantaila

Ez dakit nork agintzen duen gure munduan: politikariek, militarrek, jainkoek edo izarrek...

Baina, nork jakin dezake hainbeste?

Mina, maitasuna eta zorotasuna badira, ordea. Ez al dugu nahiko hirukote horrekin..?

Jainkoak behatzen digu nonahitik: zuhaitz batetik, adreilu batetik, harri batetik eta txakur kolpatu horren begi tristeetatik.

Esadazu, zertarako hainbeste galdera egin...?

Morala existitzen omen da (etsaiak esan dit!). Ikas dezagun beste behin segituan ahaztuko dugun lezio handia! Gaur, nire gorputza hondartzan abandonatuta neukala, zerura begira nengoela, etorri zaizkit galderak arrapaladan... Barrenean, itsasoak bere betiko zurrumurrua helarazten zidan, eta entzun diot esaten: "Gizakia esklabu bat da".

Orduan,

zutik jarri naiz (nire lau hankei uko egin diet-eta), juxtu zalantza guztiak aienatzera nindoala uste nuenean. Alferrik ordea;

tximistak jota erori naiz berriro

hondarretara, txunditurik. "Hemen amaitzen duk nire bidaia", pentsatu dut azken hatsa emateaz batera.

Olatuak entzun ditut azkeneko aldiz;

eguzki-argiak itsutu nau, hori ere azkeneko aldiz.

Adio esateko astirik ere ez dut izan.

(2009ko urtarrila)

Poesiaren gaineko ikuspegiak

Poesiarako bide abstratuak jorratzea
ez da langintza bat ere makala:
poesia berez zertan datza
muino urrunaren distira islatzean
ez bada?

Bere buruaz ez dakien poetak
ideien saturazioa du bere atzealdean
mehatxuka eta irainka.

Poema, hil-zorian den hatsa,
itsaso sakonera herrestan
garamatzen tiraina,
eguzkiaren erreberberazioa
gure begietan mezu bihurtuta.

Poema: funtsezkoaren zer-izana,
gertaera amaitugabeen hondarra,
iceberg batean piztutako sua,
azal biluziaren distira
eta neguaren agurra
zure leihoaren erlaitzean.

Hitzen gatibutasunean bizi gara denok,
sinetsi gabe sinestunak garenok,
gosea inoiz berdindu gabe
batetik bestera joz,

hegoak galdu dituen arranoaren pareko.

Non, non da erremedioa...
erremediorik ez duten gauzena?

Poetak begiratzen dizu,
eta begitaratean hondartza, bakartasuna eta sentimendu unibertsala igartzen ditu.

Herriko plazan,
ume bat jolasean
bera bakarrik.

Munduaren ertza irekitzen da,
umea irensten du.

Gure jakin-mina betiko geroratuta gelditzen da.

(2009ko urtarrila)

Amets zaharretako laguneria

Adiskidetasuna...

denborak irentsitako gizon-emakumeen bilduma, denak jada galduta,
gogoetan dirauen lur-bira honen
zabalera guztian barreiatuta.

Adiskidetasunak...

ahantziak egiaztatzen dituen galera etengabeen b(h)ilketa.

Agur, errauts bihurturiko lagunak!

Agur, nire oroimenaren labirinto lausoan

mamuen pare zabilzaten adiskide-minak!

Agur, oi sendiok, osaba-izebok, lehengusu-lehengusinek,

nire odolaren jarioan deseginak guztiok,

azukre-koxkorren parekook!

Eguzkia sartu arte ozta-ozta iraun didazuen lagun apartak!

Ilargi betea desitxuratzen hasi arte

fierki iraun duzuen lagun ahaztezinak!

Obstinazio dibinoaz tematu zareten

lagun hilezkorrak!

Non zarete? Udak urrikirik gabe kixkalita nonbait! Zeruan laxo ta iheskor doazen
hodeiak, itsaso bat bete malko utziko dutenak, lurralde deskubritu gabekoetan betiko
amildu baino lehen!

Agur! Agur! Ezerezaren lagunak! Ahitzeraino lagun-min izan zinetenok! Minutu batez
eusteko gai izan zinetenok, traizioaren aurrean men egin baino lehen! Agur!

(2009ko urtarrila)

Erbestea aurkitzen eta onartzen porrot guzti honen erdian

Erbestea...

bakartiaren paradisia,
zerbait gaizki doalako seinalea
bidaltzen digun nabigatzaile ausartaren
begiradaren pean naufragatuz doan egunaren bezperan genuena gogoratzeko egiten
dugun ahalegin alferra.

Erbestea...

zoritzarreko haizeak bidaltzen digun bafadaren aurrean sentitzen dugun bihotza
zeharkatzen digun nostalgiaren geziak egiten duen bidea zuzen-zuzenean gure bila
abiaraztean.

Erbestea...

hortxe garai hura amaitzen zen kale-itsuaren bokalean ustez aurkitu behar genuen gure
hanka-sartze guztientzako erantzunak sentiarazten digun hondamendiak botatzen digun
aupadari bizkarra erakusten diogula.

Erbestea...

hondartza inguratzen duten etxoletan jendeak ohean uzten duen izerdia igerrita
susmatzen dugun pena sakonak aurpegiratzen digun egiaren erdia janda gero geratzen
zaigun sentsazio atseginkoia, irrien artean galtzera doana mila alditan egiaztatu ahal
izan dugun alde zuzenetik galdutako iraultzetan.

Erbestea...

aurpegirik gabeko poliedroak eskatzen digun hustasunean harriturik beste ezertaz hitz
egiteko erabat ez gauza izateagatik ilunkiro zabaltzen zaigun esperientziaren ondoren
gugandik erauzi nahi genukeen bidegabekeria irensten duen lainopeko memoria
desitxuratuak gogora ekartzen digun geure auzoa izandakoaren argazki zuri-beltz eta
zimela.

Erbestea...

(2009ko urtarrila)

Barruan generaman ekaitza

Bihotz arineko jendeek
jakin gabe
aurrean jartzen didaten gezurrari
zur eta lur geratzen natzaionean
paisaiak berraurkitzen ditut
eta hainbeste alditan bizkar eman digun historiari erdeinuz jaurtitzen diodan begiradan
zerua islaturik kausitzen dut,
penaz lehenago jokatu ez izanagatik horrela, damuak baina zer dira desesperoaren
atzeko atetik ezkutuka ihes doazen askatasunez bizitako une bitxien multzo arrarotua
baizik?

Pedanteriazko ezkutu baten atzean euren burua babesten duten horiek alde egiterakoan
uzten duten esker oneko absentzia berbera dugu bide-zidor sastrakaz jositakoetan topatu
nahiko genukeen ahotsaren antiahotsa, finean itsasoaren boz liluratzaileri ez
entzutearren egiten ditugun saioak lurrean sakabanatuta noizbait ikusteko esperantzaz,
mendeen bukaera guztietan berdin izan baita begiratzen jakin duten guztien ahotan
frustraturik sumatu ditugun hitzetan, tristeziaren eta siestako ordu luzeen arteko
nahasketa alegia, funtsezkoa zer izan zitekeen galdezka, horixe izanik gizaki
denboragabe guztien paradoxa eternala bezain urrikigabea.

Zer egon daiteke-eta haize-zurrumbilo beldurgarri honen epizentroan hitzontziaren
jainkozko elukubrazioek burmuina isilarazteko oparitzen diguten zoriontasunik gabeko
paradisu aspergarria baizik, gauaren ertzean aditzera ematen ditugun sekretuak silex-
distira zipriztinetan harrapaturik gelditu baino lehen?

(2009ko urtarrila)

Jakin ez genuen guztiagatik

Poesiaren alferrikakotasunak
aurrean jartzen digun enigma
–espaloiarenean ertzean auskalo zergatik
hazitako lorearena bezain harrigarria–.
Udarako pentsatuta geneuzkan asmoak,
negurako bete gabe utzi genituen promesak,
mundua den zirku handiaren inguruan jiraka eta biraka, poesia solteak ekartzen
dizkigutena, begirik gabeko gau honetan.
Hiriko argiek ikusten uzten ez diguten gau hotz, ezaxolati berbera, non, hala eta guztiz
ere, poesiak ugarituz doazen,
eta ez dakigu zergatik,
gaua ikusteko begirik ez daukagu-eta.
Den-dena da alde materiala,
gu geu ere halako diru-makina
bilakatuak gara.
Orduan, nondik datorkigu asaldura...?
Harri guztietan pilaturik dagoen poesiatik darion emozioak eztarri-zuloan jartzen digun
korapiloan oraindik guztiz hilda ez gaudelako froga aurkitzen dugunean,
hau bai poza! hau bai ezustekoa!
Gora, orduan, poesiaren ahalmenean sinesteko prest dauden munduko ameslari guztiak!
Entzuten dugun goi-arnasa mistiko-mitikoa, gure egunei zentzu bat dakarkieten
antzinako drama eta ele-zahar eternalak, eguzki-ilargiaren aldi errepikakorrek
ulertarazten digutenagatik,
liburu irakurri baten gisa atzean geratu den haurtzaro fratizidagatik, izan ginen
itzaletatik ihes egiteko egin genuen ahalegin heroiko bezain barregarrian itaun baten
gisa eta lekukotasun bakar modura itsasora jaurti genituen sarkofago hieroglifikoz
betetakoengatik!
Gora! Gora gu oraindik! Gora poesia! Hau bai poza! hau bai ezustekoa!

(2009ko urtarrila)

Metamorfosia

Izaten saiatzen gara
saiatzea beharrezkoa
izango balitz bezala.

Izaten saiatzea
hori bai lelokeria
behintzat bizirik iraun artian.

Gutaz dugun ideiak
aditzera ematen digu
interpretazio itzela,
zokoraturik genuen arima
errailetatik ateraz
oharkabian.

Triki-traka gabiltza
periodikoetako lehen orrian
gutaz azaltzen den egia erdia
eztarri-zuloan trabatuta
geratu denian.

Soldadu alemaniarrak
zelaia zaintzen duenak
begi hutsekin guri begira
errua deuseztatu nahian
keinu koldar batian.

Oraintxe da beharrezkoa ordea
bizitzeko komeria
azken muturreraino
eramatia.

Minik gabeko heriotza
litekeena den bezala,
minik gabeko bizitza
litekeela uste duenak
txoriburu xamarra behar.

Agur, mundua!

Elkarrekin egiten dugu barre
ta hurrengo egunerako uzten dugu
Bidai Handirako soberan genuen
fardeleria guztia.

(2009ko urtarrila)

Arima zirkularrak (anabas hutsak)

Gutaz noizbait bilakatuko den
gauza hori erraietan katramilatu
eta gora begira jartzen zaigunean,
barruan daramagun puritanismo
atzerakoiak bere hatzapardakaz
kolpatzen gaituenean,
irakurketen isiluneetan
irakurri gabe uzten dugunak
irakurritakoa baino
pisu handiagoa hartzen duenean,
gorputegian giza hondarrak
ezaxolati zenbatzen ditugunean,
gure heriotzaren hurbiltasuna
iradokitzen digutenean
atzera erakusten dugun
harritu-itxura galanta dela-eta...
Nolatan pentsa dezaket
ezer ulertzea
besteen minaren aurretik
ikusi gabe eta begiratu gabe
igarotzen banaiz
izarrez jositako ortzeari
erreparatu gabe nabigatzen duen
itsasontziko marinel higatuaren
espíritu berberaz!
nolatan pentsatuko dut
udaberri hartako lagunak
berriro noizbait nonbait
topatuko ditudala,
aurrean ditudan gauza guztiei
nire begi hil hauekin behatzen badiet
lautada gauez zeharkatzen duen
tren-bagoiaren presa eta anonimotasun
berberaz!
Garai bateko bide-zidorrak
aurkitu!!
1972ko martxoaren 16ko
arratsalde hartara itzuli!!
1972ko martxoaren 16ko
arratsalde hartako laurak aldean
hartu ez nuen erabaki hura
berriz ere besarkatu!!
Horra benetan axola duten gauzak:
jada erabat ezinezkoak direnak...
jada erabat ezinezkoak direnak...

(2009ko urtarrila)

Basamortuetan hiltzen diren ibaiak

Gorroto zaitut,
mila aurpegi gaiztoko negu gordin hori;
maite zaitut,
mila mito zoragarriko negu misteriotsu hori;
gorrotu zaitut,
gau guztietako amesgaiztoa zaren munduan txertatutako gaztakeria hori;
maite zaitut,
umilazioan eta porrotean trebatutako herrialde guztietako gizon-emakume aldra hori;
gorroto zaitut,
aurpegi bakarreko basamortuko duna zeken eta zimel hori;
maite zaitut,
herri guztien historia laburbiltzen duen inoizko metaforarik ederrena zaren duna hori;
gorroto zaitut,
basapizti ankerraren antzera jokutzen duzun maitasun itsu hori;
maite zaitut,
munduko leiho guztietatik sartzen den argiaren emailea zaren maitasun itsu hori.

.....

Esku-ahur batean kabitzen den guztia
irudika daiteke lipar batez soilik iraungo duen hodei batetik askatutako ur-tanta baten
argitan:

–Poesia... gure bizitzeari zentzua ematen diona.

–Poesia... gure bizitzeari zentzu bat (zentzuetako bat) ematen diona.

(2009ko urtarrila)

Argazkietan harrapatutako ausentziak

Esku-ahurrean idatzita dauzkagun lerroetan ikusten den etorkizun amorfo horren
aurrean beldurturik,
suak adina erretzen duen
isiltasun sakona lagun,
esperantza anonimoz inguraturik,
orduan erbeste xelebrea inposatzen zaigu,
aukera bakar.

Denborak belarrira xuxurlatzen digu:
"Oi, Denbora nola dihoan hegan!".
Haren barre-algarek harrapatzen gaituzte,
zaurikor.

Hala ere, bide zimelean zizelkatutako har-mailetatik igotzen gara,
Ilargi zurbilaren begirada zorrotzaren pean, eta azkenean lortzen dugunean
azkeneko estaian oina jartzea,
eta horma biluziek egiten duten galdera ("nola duzu izena?") ulergaitza dela egiaztatzen
dudan artean,
nire arima eta gorputza txikiagoturik,
orduan soilik irekitzen dut

lo egindako argazkiak gordetzen zituen kaxoia, zeinetatik ahotsak irteten diren,
haizeak berekin eramandako hosto sorginduen pareko eragina nigan obratzen dutenak.

Argazkiko neskaren irria oraindik niri jarraika daramat,
nik bakarrik ulertzen dudana eta inork inoiz idatziko ez duen nire historia txikiaren
gurutzabideetan barrena.

(2009ko urtarrila)

Itxaron une batez, abiatu baino lehen

Suntsitutako aldiriak atzean utziko ditugu.

Munduko hiri guztietan alderrai dabilzan gezurrei atera diegun egia erakutsiko dugu eta etengabe bultzatu dugun bilaketa bertan behera uzteko gure asmo ederrari saldukeria egingo diogu beste behin.

Hitz egingo dugu absurduaren hizkera erabiliz, gutaz ezer gutxi ziurtatzen duen hizketa-modua bitan zatitu eta hizkera horren barruan zer-nolako erraiak dauden ikusi eta aztertzeko, antzinako aztiekin egin ohi zuten bezala, baina guk konbentzimendu gutxiagorekin.

Azken finean arrazoiaren denboretan bizi gara, bai eta bete-betean bizi ere.

*** izena izango bazenu...

Begietara begiratzen dizut

eta elkarrekin jasan genuen garai bat

atzematen dut argi eta garbi...

Zoriontsu, zauri sakonak utzi dizkigun zeru urdin itxaropentsuan ematen dugu urrats bat eta beste bat,

horren ezagunak egiten zaizkigun zantzuak nonahi hautemanda.

Munduak bere monumenturik ederrena altxatu du: isiltasuna.

Eguzkia berriz sartuko da eta berriz ezkutatu da...

(2009ko urtarrila)

Hitz higatuei punta ateratzen

Faltsutasunaren aurpegi doilorrak
aurrean jartzen didan oka gaiztoa
inor ote da gainditzeko nahikoa
hipokriten talde gero eta handiagoan?

Faltsukeria zer da denok barruan
daramagun arrakala nabarmena
batzuegan, isilpekoa besteengan,
baina denontzat berdin balio duena?
Ez naiz kristau zaharra edota berria,
aspaldiko garaietan ez dut interesa
oraina eta etorkizuna indiferentziaz
dakuskidala aitortu beharra daukat,
jainkoen misterioa argitzea
izan dadila Un-Jenioren zeregina
nik nahikoa dut-eta plater babarruna
hozten ez utzi eta ohoratzea.

Hitzak higatzen zaizkigunean
moralizatzen hasten gara,
sermoneatzea balitz bezala
ezkutaleku eta aitzakia.

Husturik dagoen botila
berriz betetzea da onena;
kristala puskatu artean
balio dezan, alajaina!

(2009ko urtarrila)

Haurtzaroko leihotik

Haurtzaroko amildegitik ahots bat
iritsi zait, ahots bat ezezaguna
eta aldi berean laguna, baina ikara eta guzti ematen duena.
Haurtzaroko amildegitik ahots bat
errauts antzo altxatu da adoretu
eta denbora infinituak zeharkatuz
heldu da nire iragana den orainaldi xume honetara.
Proiekzio askoren proiektzioak gara
beti mugimenduan beti desberdinak,
mundua mugimendua eta aldaketa baino ez baita, edota esaten zenez, eraldaketa hutsa.
Gutxien genekienean ginen jakintsuen;
orain berriz astotxo tituludunak gara.
Horrek ematen digu harro agertzeko aukera, eta mundua horrenbestez igarotzen zaigu
oharkabean.
Oi haurtzaroko egun bedeinkatuak!
nork esan behar zigun orduan bidea horren luzea izango zela!
Haurraren arima nahi nuke egunen batean
heriotzaren dei-tokian topatzea,
eta azaldu egun horretan amarrugabetasun osoan sortu gintuenaren aurrean.

(2009ko urtarrila)

Jainkoen erraietan alderrai

Galaxien irudietan amets batean bezala
galtzen naiz;
ez dira galaxiak ordea
baizik-eta jainko ezezagun baten
erraiak,
eta gu bertan bizi gara,
gure baitan bizi diren zelulen
edo mikroorganismoen antzera.
Gizonak gara, espazio itzel horretan
galdutako gizarajoak;
egia esanda, ez gara ezer,
gure historiak ez du ez hasierarik ez amaierarik –horretan oker dabilta zientzialari
guztiak–,
eskasegiak gara, ttipiegiak kosmosaren inmensitatearen aldean.
Hau, jaun-andreok, ez da txipiagotasun-konplexua,
baizik errealitatea,
gauzak diren bezala onartzea.
Ez ginen ezer,
ez gara ezer,
ez gara ezer izango.
Nostalgia bera ere soberan dago.
Hiltzen gaituenak mesede bat egingo digu.
Egin dezakegun gauza bakarra
gauzak berraurkitzen jarraitzea da,
aurkikuntza horietan gure itxaropen guztiak jarrita:
orain arte ezkutatu zaigun sekretua zinez argitara ateratzen denean –egun hori noizbait
iritsiko balitz–, aldarrikatu ahal izango duzue: oker zinen, Xabier, erabat oker:
zerbait ginen,
zerbait gara,
zerbait izango gara.

(2009ko urtarrila)

Mundu hau ez zaigu komeni, dudarik gabe

Ilargia ikusiko dugu sutan
itsaso guztiak lehor
basamortuak loretan
Europa gosez eta Afrika aberats!

.....
Eguzkia jelatuta ikusiko dugu
hildakoak hilobietatik altxatzen
larrosak neguan zabaltzen
ibaiak gorantz igotzen,
mendi-tontorretan hiltzeko!

.....
Gizonak ikusiko ditugu emakume bihurtuta, eta emakumeak gizon,
eta odolak ur eta urak ardo,
eta adoretuak koldar, eta tristeak alai!

.....
Esklabuak libre ikusiko ditugu
eta jabeak esklabu,
eta gauza sakonak zirenak azalezko,
eta paradisia infernu,
eta baso oparoak hormigoi huts!

.....
Dramek barregura eta komeriek negar
eragingo digute,
ispiluan begiratzean gu ez baina
beste bat topatuko dugu islatuta,
oroimenak erraztuko digu ahazmena!

.....
Gure bizitzako urterik zoriontsuenak
amesgaizto bilakatuko dira!
Ei, ei! Amesgaizto!

(2009ko urtarrila)

Haur-amets lap(b)urtuak

Zuhaitzen azpian lo dautzan haurren ametsak, Jerusalemdik Gazara arteko bidean hilik gertatu diren haur palestinar sarraskituenak...

Hitz batzuk nahikoak balira haur horien begirada alaia berriz ere pizteko...

Baina erantzun bakarra harriek demaigute,
eta soldadu israeldarrek New Yorkeko bazarretan merke erosten duten lehen mailako armamentuen truke ordaindutako txeeekin.

Tiroak luzeak eta seguruak dira,
eta palestinar haurren eskoletan sartzen dira, arbeletan idazteko diren klarionez mozorrotuta. Hildakoz beteta dauden eskoletako hormetan ez dago pintadak egiteko lekurik –heriotzak den-dena betetzen du-eta–.

Egunkariak arbuiatzen ditut (mertzenarioei eta genozidei bakarrik gustatzen zaie *euren* prentsa 24 orduz irakurtzea).

Gainera, zertarako nabigatu besteen artean? Haur guzti horiengatik negar egiteko, nahiago nire bakardadea,

ONU-ko hipokriten ospakizun solemne guztiak baino.

Palestinako zerua inpaktuz josita dago.

Israeldarren tiroek huts egiten duten bakoitzean, hiru haur erortzen dira hilda.

Hurrengo egunean, agur esan gabe alde egin zuten soldaduek.

(2009ko urtarrila)

Arkakuxoaren bi aurpegiak

Aterpetxeak behar ditugu,
hausturetatik ihes egiteko;
loreak behar ditugu etxean,
zerbaiten jabe garela sentitzeko;
gaixoen malkoak zeinen ederrak,
gure osasunaz hobeto gozatzeko;
eskain iezadazue haragia,
belar-jale egingo naiz-eta;
eskain iezadazue ardoa,
erakutsiko dizuet nire izaera abstemiaoa.
izan zaitezte gizatiarrak,
eta goratuko ditut barbaroak;
izan zaitez ankerra,
probatuko duzu nire humanismo ederra.
Joka ezazu apaltasunez nire aurrean,
nire harrokeriaz erreko zaitut-eta;
noizbait lehertuko da gure kontraesanen anabasa, Erljio bilakatuko gara,
eta hausturetatik babesteko
aterpetxeetara egingo dugu ihes.
Lorerik ederrenaren bi aurpegiak agerian jartzen dituen poesia absolutua:
moralaz eta etikaz harantzago,
edertasun eskatologiko batez
zigortzen gaituena.
Gure higuinak ez du mugarik.
Harrietan bilatzen dugu
betiko galdua dugun samurtasuna.

(2009ko urtarrila)

Absurduari neurria hartu nahian, alferrik

Denbora lagun eta pazientzia apur batez,
jaiotzea lortu nuen
eta oraindik ez dut gainditu
horrek eragin zidan harridura.
Inoiz ez genuke gehitxo puztu beharko
eskuetatik joan zitzagun zoritxarreko ordu hura, batez ere kontuan hartuta gero
zeinen zaila izango zen itzultzea,
atzean utzitakoa bideratzeko.
Milurtekoen atzetik beti dabil beste egun bat, artelanean islatzen ez dena lotsaz agian
edo zuhurtziaz beharbada.
Tabakoak hiltzen duela
egia hutsa da
baina antzeko ondorioa dakar
denek gorai patzen duten literaturak.
Baten batek zioen bezala:
iragana dastatu dugun neurrian,
probatuko dugu geroa ere,
biharamuneko tartea bizitzera zigorturik gaudenez gero.
Hauxe bai mundiala, abstrakzioari gaina hartzea, errealitatearen eta sentimenaren arteko
zubiak eraistea, gure arrunkeria bikaintzea, eta honelako trepeten bidez gizarajoak
engainatzeko gauza garela beste behin egiaztatzea, begiradekin tranpak egiten dakien
arrakeroaren (*tahurraren*) antzera!

(2009ko urtarrila)

Hitzen ifrentzua

Talaia batetik begiratzen diguten
hitzak,
Lurraren erraietatik begiratzen diguten
berberak;
bere baitan itxita dauden hitzak,
kanpora begira zabaldua dauden
hitz berberak;
oskolak bezain fierki hertsita dauden
hitzak,
zeruan antxetak bezain aske hegan egiten
dutenak;
bide mortu batean harrien antzo topatzen dituzun hitzak,
baso biziz betean zomorroak bezain geldigaitz azaltzen direnak;
aldapatik gora nekez ozta-ozta aurrera egiten duten hitzak,
maldan behera tximista bezain azkar arin-arin jaisten direnak;
lokatzetan gero eta sakonago murgiltzen gaituzten hitzak,
ederzalearen tenplura urrats bat hurbiltzen gaituztenak;
ikatz huts diren hitzak,
harribitxi eta urre direnak;
hondamendia eta desolazioa dakarkiguten hitzak,
maitasuna eta ontasuna besterik ez daukatenak;
pizti bihurtzen gaituzten hitzak,
jainko bilakatuko gaituzten berberak.

(2009ko urtarrila)

Bizirik edo hilda, engainuetan ankerrena

Azken aurkikuntzak,
lehenengoak bezain eskeletikoak...
Sahats batek bere erabateko gelditasunaz
egiten du negar...
Zigorra jasan behar zutenek ere negar egiten dute, atzetik noranahi darraien
erruduntasunari ihes egin ezinda.
Txarrena, oraindik txarragoa izan zitekeela pentsatzea.
Gainerako guztia ia-ia ez da
eztabaidatua ere izaten.
Dena da engainua,
eta guztietan sakonena: geure buruari sartzen diogun ziria.
Orduan, uzten diogu zerbait sentitzeari,
eta gustua hartzen diogu gezurraren zabuan kulunkatzeari.
Ez jakitea egia baten edo gezur baten
emaitza ote garen,
kasik irudikaezina den
mirari baten pare...
Urtebetetzeko paxtelan pizturiko kandelatxoak itzaltzen dituen haurraren ilusio berberaz
egiten dugu atzera itzulbiderik ez daukan paradisuari galdu genuen izaera dibinoa
berreskuratze aldera.
Gurtzen dugun gezurraren beste seinale bat, sitsen modura metodikoki eta pazientzia
handiz barrutik marruskatzen gaituen erru-sentsazio soil, iheskor eta ilunki
distiratsuaren azken atzaparkada hartzetik... libratuko ez gaituena.

(2009ko urtarrila)

Amets izugarri goibelak

Gauza guztiak beltz ikusten ohitua,
eguzkia dirdirka bere hil-jantziaz,
arrasto goibel-iluna uzten duen
erromes ezezaguna.

Lorategi zaharrea loreak eder,
Arimaren ispiluan zimel agertzen,
hildakoen omenezko kankak ere
ezpainetan zer-eta alaiaren kalte.
Kotoizko hodeien ordeaz aurrera
mehatxuz betetako hodei goibelak,
zeruak berak ere ematen duela
une batetik bestera eroriko dela.

Izarrak urrun ikaraz dirdir
izadian mutu gure lagun Kilkir,
izuaren izuz badiraut hotzik
somatu naiz barrutik hain hutsik!

Garai bateko hiri jendetsuok
zeuen hondakinetan ahaztuta
ekardazue lehengo arnas hura
zainetako odola jeltzen duna.

(2009ko urtarrila)

Heriotza iragarri baten suizidioa

Urrun begiratzen zidan, harrituta bezala;
eskutik heltzen zidan;
haren laztanak tristeak, urrunak eta samurrak ziren aldi berean.
Nik une hartan gorroto nion,
gorrota daitekeen indar guztiaz
gorroto nion.
Hamasei-hamazazpi urte nituen.
Bera nire gorrotoaz ohartzen zen;
eragiten zidan higuina ia-ia uki zezakeen;
nire suminak, ordea, haren samurtasuna areagotu baino ez zuen egiten.
Ulertu ez nizkion hitz batzuk esan zizkidan;
erantzun ez nion zerbait galdetu zidan;
harentzat une garrantzitsua zela zirudien...
Nire gorrotoa areagotzea baino ez zuen lortzen...
Azkenean, mahaitik altxatu zen,
musu eman zidan,
ile-xerloak irauli zizkidan
ama batek bere ume bihurriarekin egingo lukeen bezala,
eta pub-etik alde egin zuen.
Eskaileratik gora galtzen ikusi nuen.
Biharamunean, hilda zegoela entzun nuen.
Hilda agertu zen, gáindosiak jota.
Orduan, dena ulertu nuen:
haren keinuak, haren fereka tristeak,
haren begirada, haren etsipena...
Agur esaten ari zen;
agur esaten saiatu zen;
nik, ordea, ez nion ulertu.
Eta ordurako, beranduegi zen.
Janis Joplinen erara janzten zuela gogoratzen dut
Urte askoren buruan, kalean, haren aita ikusi nuen, eskuan lore-sorta bat zeramala.
Hildakoen eguna zela uste dut. Ez ninduen ezagutu. Nik hura bai... Txikitan ilea
apaintzen zigun, 50 metro karratuko bere etxean bertan zeukan ile-apaindegian.
Extremadurakoak ziren. Jende ona. Bizitzan, neke handiak ezagutu dituzten
horietakoak.

(2009ko urtarrila)

Haizeak eramandako itxaronaldiak

Itxarotea ez da erraza,
luzea egiten da-eta;
bestalde, amets egitea
hain da aspergarria...
XX. mendearen hondoan
erorita nago,
non minutu bakoitzak
hiru baitu balio.
Norbaitek lore-hostoak bota ditu
espaloian zehar.
Eserleku batean eseri naiz,
zu bertatik noiz pasatuko zain.
Itxarotea, ordea, ez da erraza,
luzea egiten da-eta;
bestalde, amets egitea
hain da aspergarria...

(2009ko urtarrila)

Neguko aitortza

Kontatzeko moduko gauza asko jazo ziren, gehienak nonbait ahaztuta geratu arren. Bidea luzea da, ibiltzeko oin pare bat besterik ez daukanarentzat. Farolak gorri eta berde agertzen ziren, hiriko baratze ugarietan. Kantoi bakoitzean ordua eta tenperatura jakinarazten zizkiguten, bai eta jakinarazi eskatu gabe ere. Udal agintariak zeinen atseginak diren! Nire kontuetan ez pentsatzearren, hasi nintzen abesten, ingelesez; letrak asmatu ahala, erraz ahazten nituen! Nork bere bidea aurkitzea ez da inoiz erraza izan; milioika lagun garenez gero, beste ahotsen artetik norberarena aurkitzea ez da zeregin samurra... Hiriaren hotza sartu zitzaidan barrura. Ez nengoen ziur hotz hura nirea ala neguko hiriarena ote zen. Hotza merke dago urteko egun guztietan (euroaren gorabehera sano egiten die barre). Hotzak ez du krisialdirik ezagutzen. Hotz-mota asko daude, baina gutxien hiltzen duena, benetakoa dela diote. Gero, beste hotzak daude, pinguino jator bat izozteko gai direnak: maitale dekrepitoen hotza, iraultzaile ankerren hotza, politikari hipokriten hotza, genoziden hotza, zekenen hotza... Paseatzera joan naiz eta negua hiriko kaleetan ezagutu dut... bere begirada ziztrinagatik.

(2009ko urtarrila)

Poeta zaharren erara

Ardoak edanda itotzen ditut penak,
“hago, flotadorea botako diat eta”
Pena zahar bat dut bihotzean
“zama horretara ohituta hago, beraz”;
milaka urtetan ere ohitu ezin,
“hainbeste denboran hi bai nekaezin”;
besteen penak alai hartzen ditut,
“alaitzen hautela ezin ukatu”;
Zer haiz hi: barrabas ala tunante?,
“Kanpotik burdin, barrutik diamante”;
Sasi urrea haizela hasi nauk susmatzen,
“hire penekin-eta nauk nazkatzen”.
Adio, sasiko, agur ezak On Periko,
“Hire partez, halaxe diat egingo”.

(2009ko urtarrila)

Ergelkeria hutsak

Besteen artean sudurra sartzeak
sekulako poza ematen didala aitortzea
egiaren aurrean dudan zaletasuna agerian
jartzeko modurik zitalena dela ezin uka.

Nahi nuke niretzat emakume bon-boi bat, nire gauza guztietan amen esateko prest omen
dauden horietakoa; zoritxarrez zahartuz noa inon topatu gabe nire bihotzeko musa
mutua eta erdi-ttuntuna.

Ikusten denez, azkarregiak dira gaur egungo exekutiba politikak, eta ni geratu naiz
ergeletan txapeldun ohorezko izendatua. Merezi dudala esatea soberan ez balego,
esango nuke berehala.

Itsasoaren aurrean jartzen naizenean
poesiak bultzata hasten naiz aharrausika;
bokata txorizo baten aurrean, ordea,
zain poetikoa iratzartzen zait goizeko hamaikak balira bezala (ordu ona!).

Lo egitea besteak lanean ari direnean
eta izaren artetik labaintzea goxo-goxo neguko egunik gupidagabekoenetan,
nire barne-arimaren ametsak espresatzeko topatu dudan biderik lirikoena da.

Eta barkatuko naute loaren aurka dauden langile zintzo guztiak (ez da ezer pertsonala,
benetan), nik loari omenaldia besterik ez diot egin nahi: lotan naizenean, nire aingeru-
aurpegitxoaz gain,
eskultura bezalakoa bilakatzen naiz-eta.

(2009ko urtarrila)

Barruan daramatzagun ate itxiak

Nola jakin dezaket nire existentziak jo ote dituen behialako helburua eta xedea,
ba ote da amarrugabetasuna hasierako hautuak oker aukeratu izanaren errua?

Nitaz ezagutzen ditudan barne-inguruetan
denbora erdi-galdurik doakidala aitortu beharra daukat; nire Arima lotan da eta hobe da
horrela izatea, zeren esnatzen denean izutzen nauten paisaiak jartzen baitizkit aurrean.

Nire barruan badira itxita dauden atea,
horiek zabaltzeko adorea bakarrik aurkitzen da bat gazte denean; hortik aurrera, den-
dena da ausarkeria eta balentria, lehenago edo beranduago garesti ordaintzen dena.

Kontua da: eta Arima lotan bada, nor eta zer dela-eta iratzarriko da? zein haize-zirimola
etorriko da lo ginen paradisua ezeztatzen? eta batez ere, zerk bultzatuko gaitu men-
egitera galera eta desesperoa besterik ekarriko ez digun dei horren aurrean?

Nortzuk garen dakigula uste dugunean,
etxeko animalia ernegatu baten gisa azaltzen zaigu ahots bat, zeinak nekez gogoraraziko
baitigu benetan gurea dela,
ispilu lotsagabeak bihurtzen digun isla zakar hori egiatan gu garela, eta ez dela amets
bat!

(2009ko otsaila)

Agur, ene Unibertsoa!

Azkar iragaten da gizateria eta harekin batera gure gazteria, zeinaren parte izan baikin horretaz jabeturik ez bageunden ere, zeharka atondurik dauden kale guztiak amaitzen baitira beste batzuk hasten diren tokian.

Gauzek duten jarraitutasun temosoa jainkoekin ez besteekin dut alderatzen, betierekora daraman bidea ezkututzen zuen sastrakak ematen dituen atzaparkada horien mina ezti bihurtzen baita, objektuen alde inmateriala ukitzean.

Badatozen eta badoazen egun guztien segidan itsasoaren bakardadeaz geratzen den ausentzia ba omen da txit ona unibertso ezinezkoak jarri digun pisua arintze aldera, larruazalari atxikitako ordu bakoitza ezberdina da-eta batbederaren bizitzan.

Itsasontzia portutik abiatzen denean itsaso barean uzten duen estelan une batez idatzita geratzen diren hitzetan adieraziriko sekretu itzelak, ozta-ozta irakurrita jada deseginak eta gizon marinelen bizitzen modura sekula berriro errepikatuko ez direnak.

(2009ko otsaila)

Zorionez eta halabeharrez

Helbururik gabeko gizasemeak ditut gogoko bereziki, bide lau eta sotiletan halabeharrez galduta amaitzen diren horietakoak, urteen bukaeran hasieran bezainbeste dakiten gixajoak, ezagutzatik haurraren amarrugabetasunez itzultzeko gai diren liburu-maitale desengainatuak... Hitzak paperezkoak direnean, haizeak eraman ez baina komuneko urak itotzen dituenean, teknologiaren euskarri berrietan birus batek sorginduak eta desagerraraziak direnean... Funtsean, kulturaren esanguraz ari gara: ezerez eraldatu bat lehengo ezagutza erabili baten trukean. Zer gara, aurretik pilatutako kulturaren, esperientzien bilduma laburtua baizik? zer gara aurreko izerdiek, aurreko frustrazioek oretutako erreplika gutxi gorabehera eboluzionatuak baizik? Zorionez, beti geratzen zaigu olertia: absurdua, zentzurik ez daukana, arau bati jarraitzen ez diona; zorionez, beti geratzen zaigu balizko estetika baten aitzakia, zeinean ezkutatu gure garaipen pirrikoak, gure porrot itzelak... Ibaia lehortu bazen, hura ez zen gertatu gure erruagatik, lehendik halaxe idatzita zegoelako baizik. Olertia maite genuen, Paris baino gehiago.

(2009ko otsaila)

Azkenean, lehorreratzen garenean...

Trenetik jaitsi nintzen, aurrean bizitza oso bat zain nuela sinetsita;
trenak alde egin zuenean, txistu luzea bota zuen, asalduraz bezala;
maletatxoari heldu nion beldurrez, kirtanak eutsiko ote zion dudaz beteta;
geltokiko zaindariak bota zidan begirada mesfidatia lepoan atxikita,
kalera bidean jarri nintzenean, ahaztuta nuen kasik nire xedea:
hiri berri batean ostera ere hastea, bizitza zaharrarekin hautsi, apurtzea,
eta sugearen antzera nik ere larru-azala berritzeari ekitea.
Desenkusa modura ez dut esango gaztea nintzela, urteetan aurrera
nindoala esan beharra daukat-eta;
nire alde neukan gauza bakarra:
ahazteko dudan erraztasun arraro hau,
batzuentzat miresgarria
besteentzat negargarria.
Berdin dio –atzera begiratzen ez dakien gizasemearentzat–.
Taxi bat topatu nuen hortxe geltokiko sarreran bertan,
baina nonbait lotsa eman zidan nire helbidearen berri ematen hastea:
“Nora?” galdetuta,
“Ez zekiat” erantzun beharra
inoiz ez da izan guztiz atsegina
ondo jaiotako gizasemeen artean.
Maletatxoari beldurrez heldu nion,
kirtanak eutsiko al zion
ez nekien eta.

(2009ko otsaila)

Itzuleraren zain...

Oraindik gogoan ditut zure ezpainetan
hitzak ikasten nituen egun haiek...

Oraindik gogoan ditut zure ezpainetan ikasitako hitzak zeinen erraz ezabatu zituen
denboraren joanak, nire oroimen kaxkarraren laguntzaz...

Oraindik nire buruari galde egiten diot hitz haiek nonbait ba ote diren oraindik, akaso
urte jakin bateko hilabete jakin bateko aste jakin bateko egun jakin batean daude
oraindik, jandako hitza berriz nire gain hartzera noiz itzuliko naizen zain...

Oraindik gogoan ditut alferrik bizi izan nituen egun, ordu eta segundo haiek guztiak,
orainaldiaz besterik arduratzen ez nintzeneko garaietan, ergel hutsa, itsua eta kementsua
nintzelarik, ilusioz beteta beti (arrazoirik gabeko *ilusionista*...).

Hara berriro itzuliko naizen itzaropenik ez daukat –airean txori batek utzitako arrastoari
jarraitzea bezain absurdua litzateke eta–. Nire oroimenetik bakarrik egin ditzaket mota
horretako ahalegin barregarriak. Ibili ahala, gure atzetik betiko itxita geratzen den ate
piloa gara. Txoratzea nahiago nuke, ordea, itzultzeko desirari uko egitea baino lehen.

(2009ko otsaila)

Berandu, beti berandu

Hiltzen garenean, ozta-ozta daukagu gure hiletara joateko astia, eta are gutxiago gogoia.

Aitortu behar da zenbait gauza beti gure borondatearen aurka doazela.

Baina goian dugu orojakile inpertinente hura, badakizue, denboren hastapenetatik *kotarro* honetan nagusi moduan ibilitako berbera. Hau bai poema kaxkarra eta negargarria. Ba ote da poema, benetan? Zer arraio da poema bat? Urte luzeak daramatzat poesia irakurtzen; nire buruari hamaika aldiz egindako galderari erantzuteko erabat ezgauza izaten jarraitzen dut oraindik.

Metrika edota neurria dela, azken hizkietan bilatu beharreko soinu aldetiko harmonia dela, eduki “poetikoia” dela... Zalantza da nagusi, poesiaren zergatietan buzeatzen hasten garenean, zenbait gauza besterik gabe direla aitortu beharra daukat: maite zaitu, ez zaitu maite; maite duzu, ez duzu maite... Ez galdetu zer dela-eta, galdetu soil-soilik hala baden ala ez.

Despedidarako, berriz heldu nahi nioke hasierako gaiari: hiltzen garenean, iritsiko ote garen gure hiletara, zeren hainbeste autobus, tren eta aukera lurbira honetan galdu eta gero, nork esango dit orduko horretan ere gauza bera gertatuko ez dela? Nork?

(2009ko otsaila)

Aingeru ziztrinarena

Oi, aingerutxo beltz-iluna,
hortxe izkina horretan zain
nire arima zurekin noiz eramango
irrikan –ez ukatu! alferrik da-eta–.

Ez zara zerutarra ezta lurtarra ere
aitortu behar dut: baduzu nire antza!
Nirekin duzun beharra betez gero,
ordea, norengana joko duzu preso?

Kartzelazaina bizi baita presoaren
kartzela berean, eta orduka bada ere,
halaxe dira biak kartzela barruko objektu:
biak funtzionario bihurtuak *del tempo*.

Oi, aingerutxo beltz eta *siniestro*
dardarka jartzen naiz zu ikusita *in movimento*,
ingura zaituen bakardadea ohartzen naiz
ez dela partekatzeke.

Agur, senideak agur lagun bakanak
aingeru beltzaren esku-keinuari jarraika
banoa betiko, arima dohakabea
bidaide bakar dudala.

(2009ko otsaila)

“Kuxki” txakurrarekin hizketan

Bai, Kuxki, badakit. Nik ere alde egin nahi nuke. Baina ezin dut. Feriantearen patu bera dugu: irribarre egin, datorrenari.

Protesta egin nezake, baina ez lidake inork entzungo; egia biribila ere esan nezake, baina hainbeste egia daude... Zenbat egun pilatu zaizkigun, higuinez bizituak.

Astelehena, asteartea, asteazkena... Eta amaitutakoan, berriro ere hasi, beti igual.

Bihotza herdoildu zait. Aitor dut... Nire protestak isiltasunetan ito dira... Baina, dekadentzia horretatik piztuko al da berriz noizbait Fenix hegazia! itsasoarekiko grina! maitasun irrika! Itxaronaldia luzea izan da, ordea; gelan geratzen ziren izpi bakanak itzalduz joan dira, bakarrik nireganatu ditudan soinuek arrotzu naute azkenean, eta gelako leihoa zabaldu nahi izan dudanerako, ez dut leiho-arrastorik topatu! Nire garai bateko arima horixe baino ez da: oroitzapen hutsa, behin izan nintzen mutikoaren oroitzapen baldarra. Platonen haitzuloan islak baino ez omen dira atzematen; beharbada, Marik bere ilea orrazten duenean, errekan islaturik ikusten duen aurpegia baliteke faltsukeria bat besterik ez izatea. Azken finean, dugun egia bakarra hori da: kaleko telefono-kabina batean aspaldian egin genuen deiak utzitako arrastoan gutaz geratu den sentsazioa: urteen poderioz haragitu zaigun gauza ia bakarra, dei hura egin genuenean, gure ahotsa ibili zenean harietatik zehar, eta orduz geroztik... hari-labirinto horretan galduta, etxerako bidea topatu ezinean...

(2009ko otsaila)

Bukaeren hasiera

Zure oroitzapena nire memoriatik ezabatuz doa, orain arte niretzat izan zaren guztia norbaitek ezabatzen jardungo balu bezala, borragoma ikusezin eta gupidagabe batez armatuta.

Biharamunik gabeko oroitzapena zara;
begien aurrean apurtzen den itzala.

Zure oroitzapena arrain bat da, eta nire oroimena arrantzontzi pitzatu bat.
Sareak jarri ditut zutaz daukadan gauza bakarrari atxikitzeko, baina alferrik: sare-
begietatik labaintzen zara, neurri handiegiko sarea baita nirea.

Ohartzen naizenerako, zure oroitzapena errauts antzeko agertzen zait, basoak
ezkutatutako trikuharri baten barruan betiko ezkutatuta, niretzat, guztientzat,
bihar existituko ez diren denborentzat...

Nire oroitzapena erlikia bat baino ez da, Erdi Arotik mirariz bezala ailegatu den ermita
hondatu bat, eta zulo bakoitzetik denbora zatika erortzen zait, zugan pentsatzen
ahalegintzen naizen bitartean, barrutik oraindik erretzen nauen nerabe-
amarrugabetasunez...!

(2009ko otsaila)

Poesiaz mozkortu ginenok

Bere ahots suizidaz espresatzen den isiltasun desesperatuari aurre eginez
Bizitzako lurrin alai eta gutziatsuek gudan eragiten zuten poza, paisaiari begira
ginenekoan, atsegina ematen zigunaren gatibu....

Eguneroko lan gorrotagarriak

Eguneroko maitasun higuak

Eguneroko sentipen hiper erabiliak

Eguneroko hipermerkatuetako eguneroko pertsonen eguneroko asperraren eguneroko
arrunkeria egunerokoa...

Baina liburuez harantzago, atseginez harantzago, edertasunaz ez dakien bizitza hasten
da, beti gure zain, gure fribolitatea aurpegiratzeko prest, gaztaroan betiko bizi nahi
duten agure histrioniko eta dekrepitoez barrez... Horra beste aurpegia, denok barruan
daramaguna edota eraman beharko genukeena, den-dena ez dela txantxa dioena, eta
bere duintasunean arrazoi bat bilatzen duenik badela gogoratu ez ezik, aldarrikatu ere
egiten duena. Eta zergatik ez? Ugalkuntza bera, bai, gure endaren ugalkuntzan ere erro
luzeak botata dituena. “Desesperazioa eta tristezia poetarenak izan daitezela”.

Horrela hitz egiten dute gizon praktikoek. Horrela hitz egiten dute gizonak. “*Baina, nik,
txoria dut maite...*”

(2009ko otsaila)

Arinkeriak

Aurrerantzean bidean gora
topatu dut itzal bat.

Galdeturik nora zihoan
esan dit: Hire etxera.

Kasu horretan, esan diot, goazen elkarrekin,
erakutsiko dizut bideaz daukadan
idea eta zuk erakutsi niri zeurea.

Tenore horretan abiatu gara,
irriz bata eta bestea, sumatzen
zer gertatuko zan;

Ez garela tronpatu esan behar.

Handik bost minutura galduta baikenbiltzan erabat;

bide bera elkarrekin hartuta
ezinezkoa da entendimendura iristea,
biderik errazena izanda ere

denok moldatzen gara gaizki samar;

bizitzako garai batera helduta
ibili beharra dauka nork bere kasa,

bestelako saioak eginda
denbora alferrik galtzea da

eta geratuko zaigun sentsazioa:
tuntunkeriatan ibili garela.

(2009ko otsaila)

Inorena ez den izen iluna

Ama, zure izena ahaztu zait.

– Urteak eta liburuak zure mozorroaren gainean jausi dituk, seme.

Hemen gauez bakardade honetan, ama, zure izena ahaztu dut.

– Bizitzaren lorategian begirik gabe eta biluzik sartu haiz, seme.

Ama, ez nago ziur baina beharbada hil egin naiz eta... zure izenaz ahaztu naiz.

–Seme, nire eskua emango niake, baina euliek eta zizareek jan zidaaten, aspaldian.

Ama, ez ziaten zizareek eta euliek jan, nire arduragabekeriak baizik, ahaztu baitut zure izena!

– Oker habil, seme, beti bezala. Baina ez larritu, semearen patua duk tronpatzea.

Animalia guztiek dakite hiltzen, unea iristen denean. Ni, ordea, beldur naiz... zure izena gehiago ez gogoratzea!

– Beharbada, seme, ohartzen hasia haiz heriotza zeinen neurrigabea den.

Bizitzak arrastaka narama, ama, eta zure heriotza iruzur bat dela iruditzen zait, ezin baitut gogoratu zure izena!

– Agur, seme, eta ez arduratu naufragatzeaz, hori lehenago edo beranduago denoi gertatzen zaigun zerbait da-eta.

Itxoin, nola zenuen izena? Esadazu alde egin baino lehen!

– Agur, seme. Heriotzak berriro deitzen naik.

(2009ko otsaila)

Gorrotok betetako etsaia

Barru-barrutik gorrotatu ditudan gauza guztietan korapilatu naiz; banan-banan, batzuetan oharkabea eta beste batzuetan ohartuta, baina bai kasu batean bai bestean ezertxo ere egiterik ez neukala.

Ezintasun hau, kutxilo zorrotzez beteta dagoen koltxoi baten parekoa dena, non gauero-gauero etzaten naizen, jakinik hurrengo egunean ez dela itxaropen handirik egongo, urteak eguneroko egunetako asperdura bilakatu direla.

Nitaz pentsatzen dudanean, sumatzen dut nor izan den nire etsairik ankerrena, nor izan den hondorik gabeko gorrotok nire hondamena bilatu duen etsaia: hortxe nire aurrean daukat, ispiluan, hain ondo ezagutzen dudana nire aurpegi ergel, huts horretatik niri begira, beste behin, nitaz dakidana dakidanetik espresio gorrotagarri horrekin begiratzen didan tipo hori, ni neu, hortxe, ispiluan, nire galera bilatu nahian, beti, nekaezin...

Ahalko banu, begiak aterako nizkioke neure eskuekin.

(2009ko otsaila)

Kale estuetan errepikatzen gara

Nire mamu-urratsekin nabil,
erreka lehorrak ekarri duen uztari beha;
gure iraganak, pentsatzen dut, ez du bueltarik; beharbada, ezta gure etorkizunak ere.
Iragana izen bat da; orainaldia eta geroa, bi abizen, eta besterik ez. Gure mamu-urratsekin egiten dugun bidea beste batzuekin beren mamu-urratsekin egindako berbera da. Den-dena da ziklikoa; izadiaren misterioan, sekretuan, harrapatuta gaude: behin eta berriro izatera zigortuak, eternidade osorako, behin eta berriro berpiztu, kontzientziarik gabe, beste herri batean, beste izaera batean, orain gizaki, eta bihar izaki eta etzi gauzaki, horra zer garen: mamu-urratsekin aurrera eta atzera dabilen mamu-gizateria bat, mamu-herri bat (herri global bat, 5 edo 6 mila milioi *herritarrez* osatua). “Herritar”, nolako hitz ponpoxo eta irrigarria, zenbat izan nahi duen eta zer gutxi lortzen duen izatea, hitz horrek! Mamu-urratsekin zeharkatzen dugu inguratzen gaituen ezereza, besteen esperientziak gure iragazkien bidez berriz ere bizituz, loreen erreplikak maite ditugun bezala, gu ere erreplika huts bihurtuta...

(2009ko otsaila)

Berez desegindako bideak

Kaia bere bakardadean benetakoa ote den galdezka kaioak zeruan oihuka alferrik, den-dena aldeztatik prestatuta, kaia bere bakardadean, benetakoa ote zen gure buruari galde eginez, eta kaioak zeruan oihuka, alferrik galdezka, den-dena aldeztatik prestatuta baitzegoen. Oi, kartzela honetatik atera ahalko banintz! Nire izaera nostalgikoaren biktima nagusia izateari utzi eta borrero bilakatuko banintz! Baina zehurtzari ezak inguratzen gaitu, kaia bere bakardadean benetakoa ote den kaioei galdezka hasten gatazkienean, hantxe, zeruan oihuka alferrik, den-dena aldeztatik prestatuta egongo balitz bezala, kartzelako leihotik, nire izaera nostalgiko honetatik begira, atera ezinean, biktima eta borreroa aldi berean izan nahian, hantxe, hementxe, non kaioak oihuka aritzen baitira erraunts antzeko zeru batean, zerotik oso hurbil, hustasuna asko denean, baina ez nahikoa, gu geu berriro izateko, gu berriro izaten saiatzeko. Tamalez, bidea (egin genuen bide luze hura guztia!) ezabatu egin da; ezabatuz joan da lehendabiziko egunetik bertatik, eta orain ohartu gara, beti izan den bezala, gizakia gizaki denetik, atzera begiratzeko astia hartu dugunean, biderik ez zegoela ohartu gara harriturik, atsekabez...

(2009ko otsaila)

Galderak egiten labirintoan barrena

Ez ditut nire egunak hiltzen jarraituko.

–Besteen egunak hiltzea hobe dela esan nahian habil...?.

Min ematen zidaten orratz guztiak aterako ditut nire oroitzapenetatik.

–Baina, merezi ote du oroitzapen mingaririk gabe bizitzea...?.

Espektro hutsak diren jainkoengan ez dut gehiago sinetsiko.

–Zer esan nahi du horrek, espektro huts ez den jainkorik badela...?.

Etorkizunean ederrak izan daitezkeen balizko munduen alde egingo dut.

–Eta balizko mundu eder horiek egingo al dute hire alde...?.

Inoiz irekiko ez diren ateetan joka jarraituko dut.

–Benetan uste al duk beti itxita iraungo dutela...?.

Triangelu itxietatik alde egin eta zirkunferentzia irekietan baino ez naiz ibiliko.

–Eta zergatik ez saiatu egia biribilak karratu geometrikoetan harrapatzen...?.

Hitzei guri –gizonoi– baino dirdira biziagoa darielako, baso eta haitzulo ilunetan baino ez naiz ibiliko.

–Horrela uste al duk iskintxo egingo dioala alde guztietatik inguratzen hauen argitasunari...? Hi bai inozoa!.

(2009ko otsaila)

Errauts-koloreko paisaiak

*Gutaz topatzen dugun dualtasunak kinka larrian jartzen gaituela ukatzea nork bere buruaz daukan ezagutza eskasa agerian jartzea baino ez da. Ze pedantea, tipoa, autoa gaizki aparkatu dut eta garabiak berekin eraman du, oinez itzuli behar dut etxera, azazkalak mozten ditut hortzekin, bidean, aspertzen naizen bitartean, betiko pasaia madarikatu horri begira, hauts-koloreko paisaia, hormigoia eta porlanaz eginiko izadiari egindako iseka antzekoa dena, une batez bakana sentitzen naiz, ibiltzen jarraitzen dut baratzeen artean, uralitazko txabolek kolpatzen naute, eta mendekatzeko su ematen diet, sasi-laborari alu batzuk baino ez dira, izorra daitezela barruan baldin bazeuden, hamar minutu oraindik etxera iristeko, autobus bat pasatzen da, polita, barruko argi more kolorekoak piztuta daramatza, horrek badaki nora doan, pentsatzen dut, denok ez dakigu hainbeste, neskato bat dator kontrako bidetik, berandu da, ia gaua, halako batean bueltatu eta alde egiten du korrika zetorren bidetik, pena eman dit, badakit zergatik egin duen, eta han, baratze desolatu horietan, ilunabar aldean, niri ere sartu zait korrika ateratzeko gogoia, kontrako bidean, ez dakit zeri ihes egiteko, niri, nire burutazio hutsalei, duela urte asko gertatu zen gauza hari, baina aurrera jarraitzen dut, ez dut autorik, garabiak eraman du ez dakit nora, ez dut inoiz aterako handik, beraiantzat, *hijos de puta...**

(2009ko otsaila)

Sortzailea bere xumean

Hitzak horren eskasak direnean,
zer egin dezake etikaz jokatzen
tematzen den idazle amarrugabeak
ez baldin bada bertan behera uztea
berrez arimatik zuzen-zuzenean
sortzen ez dena?

Gauza gordina baldin bada soa,
besteen soa, guretzat itxita egotea...
zer ez ote da izango baten batena,
norberarena!, itsu legez jokatzea
eta kanpo-mundua lauki zuritan
balitz bezala hor bertan amaitzea?
Naturaltasunez jaisten gara ifernura
naturaltasunez igotzen zerura
bai bata bai bestea balira bezala
propio zain genuen saria, xedea.
Hitzak hutsalak direnean gutaz
gelditzen den fiaskoak espektro bat
aurrean jartzen digunean, nor-eta
guri hain zuzen!, gauza handiosetarako
deituak ginenoi!, ez da posible ez da
bidezko gu GU! horren baxu erortzea,
gure patua horren petralki iluntzea,
gu GU! ez al ginen deituak izan
munduaz genuen ideia eraikitza!
Arrosa baten arantzak iltzatuta
daramat eztarriaren erdian,
eta hura ateratzen saiatzean
gehiago hondoratzea da
lortzen dudana espresio bakarra.
Garenerako bizi behar, baina...

(2009ko martxoa)

Mila galdera Infermuko

Nola egin, pedanteriarik gabe bizitzeko?
Hustuta zaudenean, zergatik tematzen zara idazten?
Nor izango da zalantza guztiak argituko dituzten galdera guztiei erantzungo dien
jakintsua (ergela, alegia)?
Zertarako egiten ditugu galderak aldeztirik jakinda erantzunaren alferra?
Zergatik bilatzen dugu besteen liburuetan gure barruan agortuta dagoena?
Eta zer da agortuta dagoena? Hitzak? Inspirazioa? Sormena? Bizitzeko gogoia?
Irudimena? Bizitzeko era irudimentsua eta alaia?
Zergatik uste dugu denok beste era batez biziko bagina hobeak, zoriontsuagoak izango
ginatekeela?
Egia ote da gizakiak harri berean hiru aldiz behaztopatzen duen animalia bakarra dela?
Eta zergatik hiru aldiz eta ez hogeita sei aldiz, esaterako? Ez al gara baikorregiak...?
Zergatik amaitzen dugu galdera-liburu bat idazten baldin-eta guk hasieratik galdera
bakarra planteatu nahi bagenuen? Hau da, zergatik izan behar ote dugu horren
handinahiak, horren harropuzak, horren... hiper-kementsuak?
Zergatik ezin dugu onartu zintzotasunez garena edo izan gaitzkeena, gu gaintitzen
gaituen super-heroiaren kimeran sinetsi beharrean?
Zergatik? zergatik? zergatik?

(2009ko martxoa)

Zerbaitekin hasi behar...

Nazkatuta nengoen, mundu guztia bezala.

Zerbait egin nahi nuen, mundu guztia bezala.

Familia pikotara bidali eta bizitza berri bati ekin, mundu guztiak bezala.

Hasi berreskuratzen hor bidean galdutako nortasuna, erreferentziak, mundu guztia bezala.

Hasi berriz adiskide-talde polit bat eratzen, afariak egin, gauez ateratzen, dibertitzen, motel, mundu guztia bezala.

Maitasuna berriz ediren, berriz amodioa, berriz gorputzen magia argitara atera, mundu guztia bezala.

Hasi hasten, mundu guztia bezala.

Hasi amesten, hasi amets zaharrak kutxa zaharretik ateratzen, mundu guztia bezala.

Hasi benetako gauzak, benetan garrantzia dutenak bakarrik kontuan hartzen, lehenesten, mundu guztia bezala.

Hasi erretako urteak berrosatzen, mundu guztia bezala.

Hasi, hasi, hasi, hasi, hasi, hasi!!!

(2009ko martxoa)

Duda egitea bada zerbait, behintzat...

Beharbada, ni ez nintzen zuk uste zenuena eta beharbada, zu ez zinen nik uste nuena.

Beharbada, den-dena izan da *a mistake*,
eta kasu horretan, zuk esango didazu ba
zer izango den *the best*...

Beharbada, nik ez nizun den-dena kontatu eta beharbada, zuk niri ere ez zenidan den-
dena kontatu. Beharbada, den-dena izan da *a pitiful lie*.

Beharbada, ni zutaz nazkatuta nengoen eta zu nitaz nazkatuta zeunden, baina beharbada
sekula ez ginen ausartu batak besteaz pentsatzen genuena esaten, *maybe*...

Beharbada, onena litzateke zu pikotara joatea eta beharbada onena litzateke ni pikotara
joatea, eta beharbada, orduan zu eta biok apur bat

zoriontsuak izateko aukera izango genuke, *who knows!*,

alditxo batez sikiera, egoera berrira ohitu arte, beharbada, nazka-zikloa berriz hasi arte,
perhaps...

(2009ko martxoa)

Lurra, *Ego te absolbo* (“egote absolutua” euskaraz)

Batzuetan nire buruari galdetzen diot lurrak zer dela eta ematen dituen bueltak, eta oraindik ez dut erantzun erabatekorik aurkitu, konbentzituko nauen erantzun bat alegia, zientzian arakatu badut ere, baina alferrik...

Hortxe da, bueltak ematen etengabe, hor kanpoan, kriston hotza egiten duela, eta gu enteratu ere egin gabe, ezer sumatu gabe, bueltak ematen dabilela, hor kanpoan kriston hotza egiten duelarik, eta hori guztia kontuan hartu gabe lurrari bere bueltak emate horretan inguratzen zaion bakardade itzela, eta iluntasuna, eta indiferentzia unibertsal, kasik dibino hori...

Agian egun batean lurrak “buelta bat ematera noa” esan zuen, eta orduz geroztik ez du gelditzen jakin. Ez, ez naiz txantxak egiten saiatzen ari; ez da hori, kontua askoz serioagoa da-eta. Lurra edo gu, bi mamu baino ez gara, beharbada inoiz existitu ez diren bi mamu urrikgarri, beti bueltak ematen jakin gabe zergatik, zertarako, bueltak ematen ari garen ere nekez sinesten dugula, eta hala egitekotan, zerbait sinesteagatik, baztertu dugun jainko batengan sinesteari utzi diogulako, apika, horrengatik izango da, jada ez daukagulako zertaz, nortaz fidatu.

(2009ko martxoa)

Galderak egiteko ordua da

Hori da garrantzitsuena, norberaren ahotsa aurkitzea. Gainerako guztia, plagio hutsa; edo are okerragoa, auto-engainua.

Hobe pixka bat izatea, baina benetakoa, ezen, asko izatea, baina irudikapen hutsa.

Kontu zaharra da.

Gizateria hasieratik bertatik dabil nor arraio den jakin nahian, eta zerbait/norbait izatekotan, hobe “gu geu” izatea, eta ez “besteren bat”.

Erljioan erortzea bada ere. Krisialdietan alegia.

Batek bere buruan bere “nia” topatzen ez duenean, erlijioa azaltzen da flotadore batekin, eta itsasoaren esku dagoen zein naufragok botako du atzera halako eskaintza eskuzabala?

Bost zentimoko flotadorea Onasisen fortuna osoa baino balio handiagokoa da halako trantze batean dagoenarentzat,

azken finean noiz juzgatzen dugu aberastasuna, osasuntsu eta “hilezin” sentitzen garenetan ezik?

Horra jakituria, lau hitz xumetan laburbildua.

Horra sekretua, Perikoren egia handi horietako bat, babarrunak bezain astuna, sabela dantzan jarriko diguna,

kontuaz ahaztea lortzen dugun arte
(oso laster gertatuko dena, berariaz).

(2009ko martxoa)

Sentsazio ergelei gorazarrea

“Goliat” sentsazio ergel hau, sekulako zerbait egin izan bagenu bezala, ez dakit, 35 urtez gizarte segurantzako kuota guztiak ordaintzea, esaterako, benetako heroismoa balitz bezala (eta ez al da egiatan hori benetako heroismoa?). Nork bere kalkuluak egiten ditu, nork bere erreferentziak sortzen ditu, nork bere “zentzu heroikoa” berrasmutzen du, hori gabe arrunkeriak irensten gaitu eta. Heroikoak izan beharra dugu, ezin konformatu garen zirtzilkeriarekin. Hona etorri gara, hemen gaude, eta bihar... Beraz, ekintza heroiko baten beharra daukagu. Esaterako, Gizarte Segurantzako kuota guztiak ordaindu 35 urtez, behin ere huts egin gabe... Ergelkeria handiagorik! Baina, zer nahi duzue? Batek bere mugak ditu. Eta izango ez balitu, asmatu egingo genizkioke. Honez gero jada asmatu ez baldin badizkiogu... Hemen, seme, ez dago inortaz fidatzerik, inortaz ere ez (beste batzuek “inor ez” diote. Baina berdin dio, ezta?).

(2009ko martxoa)

“The Challenger” putetxe bihurtuta

Denbora amaituz doa, eta guk hemen jarraitzen dugu, “arazo” hori gurekin ez baletor bezala (hobe “joan” aditzarekin bai, baina nagi naiz orain eta ez dut nire urratsetara itzuli nahi). Beraz, denbora amaituz doakigu, eta guk hementxe jarraitzen dugu, kontuak gurekin zerikusirik ez balu bezala. Itxurak egiten aditu handiak gu, beste albo batera begiratzen trebeak, gu, itxurati amorratuok, farsante ederrak gaude eginda, bai, eta edanda ere saiatzen gara mozorroari eusten, mozorroari, bai, bakoitzari berea, bakoitzak berea duelako, ez da inor salbatzen hortik, akaso drogazaleak, borondaterik ez dutenak, giza arima hondatu dutenak. Akaso (auskalo). Gelditzen naiz nire espresioari begira, aurrean ispilurik izan gabe, eta ikusten dut oso garbi, eta topatzen dut desilusia (ilusiorik eza). Proiektu “ilusionanteak” dituztenek beti eragin didate kristoren ilusiorik eza, hiztegiak bakarrik gogoratuko balira bezala euren burua engainatzeko, boto urrikgarri batzuk eskatzeko edo. Bizi gintezke hauteskunderik gabe, antolamendurik gabe, erreferentziarik gabe, alderdi politikorik gabe, ezer gabe, galtzontziloekin soilik, beharbada galtzontzilorik ere gabe (hobe, gutxiago ikuzteko).Banoa. Gehiegi hitz egin dut gaurkoz.

(2009ko martxoa)

Pernandoren egia biribilak hirugarren munduari buruz

Hotza daukat. Tapatzeko ezer inoiz izan ez duten guztiengatik hotza daukat (hotz naiz, dialekto puruan/putan esateko). Hotza daukat. Eta nik, zer egin dut nik tapatzeko ezer inoiz izan ez dutenen alde? Soberan nituen hondakinak eman dizkiet, zabortegira bota beharrik ez izateko. Zekenei mina ematen die-eta ezer botatzeak. Tori, joan den hileko ogi-koxkor bat, jan ez nuena tarta gehiegi jan nuelako. Eta bixugua goxo-goxo zegoen, eta hortxe duzue eskeletoa, “raspa” alegia, hexurrak, *mondos y lirondos*, zintzilikario bat behintzat egin dezazuen, eta gero hatu gisa eraman hilobira, nire izen-abizenak (emailearenak) aipatuz, hori argi eta garbi gera dadila, nork bidali zizuen bixugu eder haren eskeletoa, bere ustel usain eta guzti, Europatik, fardel dotore baten barruan (berrerabilitako fardela, noski). Eta orain, Nobel sarirako aurkeztea baino ez zait falta, zailena eginga dut-eta, denak engainatzea, denei ziri ederra sartzea, bihotz oneko txo bat, txo solidario bat, besteak bere aurretik jartzen dituen zoro elkarkoi horietako bat... Utz ieza dazue lurrean zulo bat egiten eta nire etorkizuna satorren hortzetan uzten, mesedez.

(2009ko martxoa)

Poesia *konpletuak* daude, “*konpletitas*”, erdal soinuez esateko. Eta gero, poesia osatugabeak daude, euren egileak bezalaxe, eta horiek dira hain zuzen niri gehien erakartzen nautenak, olerkiak zein olerkigileak, desorekatuek beti erakarri naute-eta (zergatik ote?), galtzaile-usaina dutenek, ergelak izan gabe ergelen pare jokatzeko dutenek, eskuan den-dena izanda ia dena galtzen dutenek. Eta horrela, mila adibide, zein baino zein muturrekoagoa, gaztaroko zera horiek oraindik nigan bizirik iraungo balute bezala... Beti dago gaztaroko zeraren bat inoiz amaitzen ez dena, gizaki prestuekin behintzat hala da, badakizue, pixka bat jota dauden horiekin, desorekatuekin, galtzaundiekin, eroekin, “osatugabeekin” beti izan den bezala. Ni horiekin moldatzen naiz-eta hobekien, jada iragarri dudan legez, 1234. urte honetako apirilaren 22an gaudelarik, udaberrian beraz, bitxiloreek distiraz gure arreta deitzen duten urte-sasoi berezi horretan, eta zu, eta ni, eta gu... lehengo lepotik beti. Biba gu eta gutarrak!
“Biba!!!”, erantzun zuen plebeak.

(2009ko martxoa)

Egarri naiz. Bizitza osoan baso bat ur inoiz edan ez dudala dirudi... Baina ez da ura nire arima materialista honek eskatzen duena, sagardoa baizik (sei graduko edari alkoholikoa, alko-eolikoa ez, burua haizez betetzen badu ere, neurritz gain xurripatuz gero). Begira, gaur ordua aurreratu dute, eta ni atzera egiten ariko banintz bezala sentitzen naiz. Ja hasiak gara orduero zerbait bezala “sentitzen diren” puzkerti profesionalen pare sentitzen. Zorriak ditut. Ez dakit alabatxoak pasatu dizkidan, edo auskalo nork. Baina zorriak ditut. Ni, hala ere, animaliak maite ditut, beraz baita zorriak ere. Fededuna banintz, pentsatuko nuke Jainkoak zorriak zerbaitengatik asmatuko zituela; eta naturalista banintz, pentsatuko nuke zorriek nolabaiteko helburu misteriozkoa betetzen dutela... Gai interesgarria da, transzendentea kasik, ez dakit hil edo bizikoa den, baina agian bai agian ez, Julio Iglesiasen abesti batek dioen bezala. Ez, lasai, ez naiz Julen Elizalderen fans bat, baina komunikabideak –badakizuenek– aski boteretsuak dira, eta hori ez da nire errua, noski, ez da nire errua. Ez al dago psikiatrarik hemen? *Erruduntasuna* aipatu dut eta. Hara, ez nuen uste Gizarte Segurantzaren horren eskax zebilenik!

(2009ko martxoa)

Badakizue ibaiari kentzen zaion bidearekin zer gertatzen den, ezta? Ba lehenago edo beranduago ibaiak berriro berreskuratzen duela. Eta hori da poetekin ere gertatzen dena: kentzen zaigun lurraldea (esaterako, itzulpen tekniko bidez kentzen zaiguna) ba lehenago edo beranduago berreskuratzen dugula, eta hori gertatzen denean, ez dago obra hidraulikorik gu geldiaraziko gaituenik! Hori ulertzen ez duen bertsolaririk ez da jaio oraindik gure zibilizazio primitibo honetan. Horregatik, orain ez etorri niri azalpen eske, bisoi amerikarrak eskapatu badira eta zuen basoa izorratu badute, ez da nire errua, ezta ipurtatsena ere (amerikarrak izan arren!). *Konekting people*. Bai, halaxe sentitzen naiz. *People* hori konektatzen ariko banintz bezala. Egun txarra aukeratu dudala onartu beharra badaukat ere: ***aren urtebetetzea da! Eta ni hemen, mozkortzen, poesia hauekin, erosita neukan oparia oraindik bildu gabe, eta denak nire zain, hementxe, zulo honetan, pottorro literario honetan. Ai, amatxo maitea, zergatik utzi zenidan mundu honetara irteten? ez al nizun nik nolabait aditzera eman han barruan ongixe nengoela eta kanpora ateratzeko arrazoi berezirik ez nuela? Baina amak zeinen diren burugorrrak kontu hauetan! Ez dute ezetzik onartzen, eta estonagarriena ez da hori, da inoiz ez direla egindakoaz damu!

(2009ko martxoa)

Atzean geratzen diren gezurrak, material pornografikoa, gau erotizatuetan (“ero” eta “tiranizatuetan”) alferrik galdutako lo-orduak, atzean, karrera bat lortzea eragotzi zidaten arrazoiak, atzean, benetan egin nahi nituen gauzak, benetan maite nituen pertsonak, benetan axola zitzaizkidan gauzak... Eta orain, pentsatzen dudanean galera zenbatekoa den, eta zeinen gutxi irabazia, kapitalismoaz damututako kapitalistaren pareko sentitzen naiz (berriz ere hasiak gara zerbait/norbait “sentitzen”. Susmo txarra ematen dit horrek...). Zer nioen...? A, bai. Atzean dena gelditu dela, aurrean ez baita ezer uzten, ez dakit zergatik, abiadura-kontua izango da, edo bestela, norabide-kontua. Baina zertarako balio digu, esaterako, norabide *batek*? Beti pentsatzen dugu norabait-joan-beharra-daukagula, gure-patuak-horra-eramatea-ezinbestekoa-balitz-bezala. Baina hori da guk sortu dugun beste gezur bat, pilatu zaigun giza galera ezkutatzeko, gure seme-alabei ere ezkutatu nahi geniekeena, alferrik, zorionez, haiei gauza horiek ez baitzaizkie oharkabea pasatzen, eta halaxe forjatzen dira belaunaldi berriak, aurrekoen arrenkuran, mespretxuan, ukazioan... Mundua badabilen seinale...

Eta zuri, poeta handi horri, hauxe baino ez dizut esango: ez bilatu gehiegitan poeta guztien Maisua eta Maisuaren maisu-lanak, pedanteria nazkagarri (e)errimatu bat baizik ez baituzu topatuko kasurik gehienetan, ziur aski gure bizitza dena, bai, pedanteria errimatu bat, gu bezain nazkagarria.

(2009ko martxoa)

Gogoko dut edatea. Beti izan dut gogoko edatea. Baina ederki disimulatu dut... Hain ondo, ezen, edateari utzi bainion, inor kontura ez zedin zenbat gustatzen zitzaidan edatea, sagardoa eta ardoa eta koinaka eta marka oneko wiskia, eta botatzen didaten guztia; nire ustez, haxixa edangarria balitz, hori ere edango nuke; eta koka esnifatu ordez edango balitz, edan egingo nuke. Ezin dut ekidin. Gustatu egiten zait drogatuta bezala egotea. Orduan, errazago ulertzen dut dena, bizitzaren zentzua, bizitza honetan egin dudana eta egin ez dudana, badakizue, ispiluaren aurrean jartzen garenean, galdezka, behin sikiera egia esateko asmo barregarria hartuta... Edatea da hori, ekintza bat, benetako ekintza bat, euskaldunen arima hain ongi deskribatu duena, areago, gure herriaren ezaugarri nagusi dena, nik uste... benetan... ez dut esan nahi...zera... ezertxo ere ez, ez ona ez txarra denik, nik bakarrik diot gaua aurrera doala, bizitza aurrera doala eta zorionez badugula zer esan, zerekin busti, zer bota barrura “berotzeko”, “benetan garenok” izaten jarraitzeko... Kitto gaude, bazterrera botata, anikilatuta... Bai..? Ez! Fenix katua berre errautsetatik berpiztua da-eta! Hainbat eta okerrago saguentzat, ezetz?

(2009ko martxoa)

Oker zaudenean, eta badakizunean oker zaudela, hain da gozoa... oker egotearen sentsazioa... zeren benetan uste baituzu amaiera dela, baina ez da amaiera, beste fase bat baino ez da, eta orain beste baten ordeztu ari naiz pentsatzen, eta orain nire ingelesa da mintzo dena, eta ez zait inporta, alderantziz baizik, gauza ederra da, jakitea ingelesez beste bat naizela, frantsesez beste bat naizela, espainolez beste bat naizela eta euskaraz beste bat naizela. Eta hain da gauza ederra, ez dakidala nondik hasi isiltzen. Eta orduan ohartzen naiz poesia hori dela, ez jakitea nondik isiltzen, ate asko irekitzeko gai zarelako, ate horiek aurkitzeko gai zarelako, ate horiek aurkitu eta irekitzeko gai zarelako... Hemen nagoenean, eta izan naizen aldi guztiez oroitzen naizenean, burua bueltaka hasten zait, eta hitz sotilekin gauza benetan korapilatsuak azaltzeko gauza naizela konturatzen naiz, eta horrek ikusarazten nau harturik dudana bidea ez dela horren txarra, horren okerra, nahiz-eta nire herriko txapeldun guztiek niri mesfidantzaz begiratu...

(2009ko martxoa)

Antza denez, egun ez-egokiak aukeratzeko hirugarren zentzumena bezalakoa daukat. Adibidez, gaur ***aren urtebetetzea dela hain zuzen etorri, heldu behar zuen “inspirazio” aparteko une honek, eta nik zer egingo eta men egin, noski. Gauzak horrela dira, horrela ez direnean izan ezik (oso bide ona dena, bidenabar esanda, sekula oker ez egoteko). Baina, barruan, esateko geneukan “gauza handi hori”, non da orain? Lausotzen hasia da, gu ere bai, lausotzen, jada ez gara hasierakoa, gaua aurrera doa, beldurra ematen digu ohean sartzeak, auskalo zer gertatuko den, sabelak jasango al duen, izarak zikinduko ote ditudan... Interneteko putetxean sartuko nintzateke baina une honetaz gozatu nahi dut azkeneraino, politegia da, aurreratuegia, poetikoegia galtzeko, nirea da gainera, nirea bakar-bakarrik, ez diot botilari zor, nire eguneroko sakrifizioari baizik, botila gehienez jota giltza baino ez da, baina ateaz harantzago topatzen dudana nire lanaren emaitza da, nire lan eskergea/eskergabearen emaitza (oi, negarrantzi!). Titulurik ez dut behar, hori ere amaitua da. Beharbada, word-en testu formatuko itxura irrigarri hau ere bertan behera utzi beharko nuke, publiko errespetuzkoaren baimenarekin...

(2009ko martxoa)

Seme-alabak ekartzen ditugu mundura, lotsa gaitzaten; bestela, ez luke zentzurik izango seme-alabak mundura ekartzeak. Baina munduak zentzu bat behar du (beharbada bat baino gehiago; agian norberarena), eta orduan seme-alabak mundura ekartzen tematzen gara, benetan munduak ezer beharko balu bezala, eta ez guk, munduak baizik; seme-alabak, lotsatuko gaituztenak, soil-soilik gure seme-alabak direlako, hasteko, eta bigarrenik, euren izateagatik, gurekin hautsiko duten guztiagatik, gure lepotik egingo dituzten barrengatik, ezarri genizkien bekatu, printzipio, ideologia eta abar eta abarrengatik. Txu egingo digute aurpegira, eta guk txuak irentsi besterik ezingo izango dugu egin, jakingo dugulako zuzen daudela, arrazoi osoa dutela, euren txua eta hori baino gehiago merezi dugula. Mundura ekarriko ditugu, gure seme-alabak, are arrotzago sentiaraziko gaituztenak, arrotz besterik gabe senti gaitezen, egoera hutsean arrotz, behar legez, naturaren lege zorrotzak betez.

(2009ko martxoa)

Poema hauek guztiak iraungo ahal dute! Ez ahal dira birus baten ondorioz desagertuko!
Izango ahal dira norbaitek preziatuak! edo behintzat arretaz irakurriak! edo behintzat
irakurriak! Poema hauek guztiek letra-zopa bat, gurutzegrama bat osatuko ahal dute!
("Gurutze" emakume-izena da, zer arraro...!). Ez egin kasurik nitaz batzuetan ematen
dudan irudiari, eta batez ere ez egin kasurik editore aprobetxategiei. Izenik ez. Ez da
beharrezkoa. Denok badakigu. Baina, ez dut "hura" ere iraindu nahi; bakean bizitzen
utzi nahi dut; "haren" arazoa da; eta niri zer...? Ez zen gizon txarra; ezta munduko
gizonik onena ere. Baina... eta nor da munduko gizonik txarrena edota munduko
gizonik onena...? Baditugu urte batzuk larru-azalari atxikita; hori ezin da omititu,
oharkabea utzi. Bestalde, ahaleginu behar dugu hurrengo egunerako zerbait uzten...
Horregatik, nik, une honetan, amaitu beharra daukat. Auskalo hariari berriz heltzeko gai
izango ote naizen; auskalo poema hauek noizbait liburu batean argitaratuta ikusiko ote
ditudan; auskalo norbaitek poema hauek bilatzen duten erresonantzia-kaxa eskainiko ote
duen; auskalo... Behintzat badakit nire bidea zein den.

(2009ko martxoa)

Oso garbi dago: poemari ez zaio inoiz deitu behar, berez etortzen utzi behar zaio, etorri nahi baldin badu... Hori ulertzen ez duena beti izango da poeta-erdi; hori ulertzen ez duena beti izango da aprobetxategi bat (hitzaren zentzurik onenean); hori ulertzen ez duena, abstemio bat izango da; hori ulertzen ez duena, nire adiskiderik onenaren etsaia izango da; hori ulertzen ez duena, irakurle lisiatu bat izango da; hori ulertzen ez duena, euskararik ez dakien Euskadiko lehendakari bat izango da; hori ulertzen ez duena, barbaro bat izango da; hori ulertzen ez duena, kulturaren etsai bat izango da; hori ulertzen ez duena, analfabeto bat izango da; hori ulertzen ez duena, bere seme-alabak eramango ditu komunioa egitera; hori ulertzen ez duenak egunen batean hilko nau, fusilatuko nau, desagerraraziko nau, ukatuko nau; hori ulertzen ez duenak ez du inoiz jakingo nor den, nor naizen, nor garen, zertarako izan garen, izango garen, ginen; hori ulertzen ez duena.

(2009ko martxoa)

Asko izan naiz, amets asko, porrot asko, norbait asko, eta aldi berean, inor ez, ia bat ere ez. Ez zait inporta izan. Bizi izan naiz, ezkutuan kasikan, bazter batean, hortik begira ibaiaren beste aldera, eta gustatu egin zait, nire anonimatu honetan babestea, inor ez izatea; berrirakurri ditut nire poemak, besteen poemak, inorenak ez, idatzi ziren poemak jada ezagun nituen irakurri nituenean, idatzi zituztenean; poema horiek buruz erreztatzen nituen argitaratzaileek horiei buruz hausnar sakonetan zihardutenean, larri, benazkotasunez, harrokeriaz –inoiz ez apaltasunez–; poemak, munduko poema guztiak irakurri ditut, eta laurdenaren laurdena izatera ere ez ziren heltzen! poesiak ez dira inoiz erabat irakurtzen; ez dira inoiz erabat amaitzen irakurtzen; hori egin uste duenak ez daki poesia zer den, zertan den, zertarako den (zerbaitetarako ote da?). Belarria erne jarri dut, zerbaiten esperoan banengo bezala; eta azkenean, ailegatu da espero nuena, hitz bat, eta gero beste bat, eta gero beste bat, eta beste bat, eta beste bat... poema osatu arte, olerti-bilduma osatu arte, olerti-sentsazioak bildu arte, diseckatu arte, harrapatu arte! Asko izan naiz, lagun asko, eta aldi berean inor ez, kasik ezta bat ere ez, hainbeste ginen, eta hain gutxi, hain eskasak, hainbeste...

(2009ko martxoa)

Poesia egiteko halako makina bat naiz. Ez da nire errua. Benetan. Begia –edo gogoa– non jarri, horra hor poesia bat. Ehiztari trebeak ulertuko dit. Poesia egiteko makina naiz, ea errepikatzen ez naizen... Baina nik ez daukat sentsazio hori, errepikatzearena... Banabil, nire bidean, lasai, kezka handirik gabe... Kilo batzuk irabaziko ditut, eta kirio batzuk galduko, seguru! Ñoñokeriarik gabe esan dut hori. Esaldi hutsik ez, please. Hutsaltasuna zuei uzten dizuet, inporta ez bazaizue. Barkatu... Harrokeria berriro... Ez, benetan... Nik... atsegina izan nahi dut... soilik... baina ez da erraza... egutegi historikoak oraindik ez baitio munduari jakinarazi urteak noiz betetzen ditudan... Horrengatik izango da, horrengatik... Hazkura duenak... badaki zer egin behar duen: hatz egin... Hazkura, azukrea, azkotxoda, bizkotxoa, motxoloa, usotxoa, pottoloa, tottoloa, mokorddoa, eta... Bufalo Bill!!

(2009ko martxoa)

Agur, Eugenio Montale, banoa lotara, eta inporta ez bazaizu, jarraituko dut ni izaten, benetan, ez hartu gaizki, baina ez zaitut behar, ez baldin bada irakurketa eginaren moduan, baina inola ere ez nire hitza baldintzatuko duen mamu moduan, eta barkatu, ez baitzintudan “mamu” deitu nahi, hemen dagoen mamu bakarra ni naiz-eta, Eugenio; ba al dakizu nik ere Eugenio zeritzon osaba bat izan nuela? Corella-koa zen, ez dakit irakurtzen ote zekien, agian bai, zaldi bat zeukan, etxean bertan, eta gurdi bat, udan hartan gindoazen, inguruko soroetara, baratzeetara.... beste garai batzuk ziren, haurtzaroa, amarrugabetasuna... oroitzapenak dira orain, nik ozta-ozta ulertzen ditudan oroitzapenak, Corella galdu hartan nolabait harrapatuta geratu zirenak, txori(ko)ñoa bere kaiolan bezala, eta hain dira politak txori(ko)ñoak bere kaiolan kantari, alai (?), egunero-egunero hortxe, egunsentiari gorazarre eginez, eta gure oroitzapenak ere berdin, handik, kantari beti, nonbaitetik, guri gogoraraziz nortzuk ginen, nortzuk garen, nondik gatozen, nondik ez gatozen... Agur, Eugenio Galarreta, eta mila esker poesiaz eman zenizkidan lezioengatik.

(2009ko martxoa)

Galderak... erantzunak behar dituenak baino ez ditu egiten galderak... erantzun zorritsu baten beharra daukatenez, horiek behar dituzte galderak, galdera pilo bat. Baina nik ez. Nik nahikoa dut besteek behar dituzten galderei beren “benetako” zentzua bilatzearekin.

Ulertzen al duzu? Nik ez. Harropuzkeria dago nire hitzetan. Edo ez? Edo bai? Galderak... Benetan izorratuta egon behar duzu galdezka hasteko. Galderarik onena... erantzunik ez duena. Eta erantzunik onena... galderarik ez duena. Ezinezkoa? Beno, gauza ezinezkoetatik hasten dira benetan garrantzitsuak diren gauza guztiak. Dena den, ez dakit horretaz hitz egin nahi nuen... Uste dut ezetz... Ez zela hori... Orduan, zertarako hartu dut molestia...? Beharbada, egia da “artista” guztiak buruan gauza bera dutela: mundua gelditzea, haiek hitz egiten duten bitartean. Eta mundua ez da gelditzen, zorionez. Dena den, hori ez da esan nahi nuena, hori ez da egin nahi nuen galdera, eta hori ez da eman nahi nuen erantzuna. Orduan, zertaz ari naiz...?

(2009ko apirila)

Itxaroten dugunari edota itxaroteari atxikita dagoen *gauza hori*, ametsetan agertzen zaigun otso horren itxurapean, beti bezain mehatxagarria, batez ere jakinik ihes egiteko aukerarik ez dugula, eta esnatzeak beste amets baten besoetan (hatzaparretan) utziko gaituela... Barrutik zauri bat irekita bagenu bezala da, edo hanketan jarri zaigun azkura benetan jasanezina, odola egin arte hatz eginda ere joaten ez dena, azkuraren helburua gaintitu, azkura gu geu garelako, hau da, azkura bilakatu gara, eta bien bitartean euriak zaratatsu jotzen du *mobil-homearen* zinkezko teilatuan. Tranpa egiten saiatu naiz. Baina tranpa egiten saiatzen zarenean, trukean zerbait ordaintzen da, eta prezioa oro har garestitxoa izaten da: faltsukeria. Esaterako, nortasun batena, adiskidetasun batena, harreman batena edo... poema batena. Eta ez dago zertaz harritu, azken finean gizakia faltsukeria bat baino ez da, bere jatorrietatik bertatik gezur bat izan da, egia handinahi (eta gezurrezko) baten atzetik abiatutako faltsukeria handi bat. Eta orain etxeko atean jotzen dugu, gu barruan gaudela, kanpotik norbaitek irekiko digulako esperantzan.

(2009ko apirila)

Ez dakit zeri buruz hitz egin
Ez dakit zergatik
Ez dakit zeri buruz ez hitz egin
Ez dakit zergatik
Batuetan galdera gehiegi egiten dizkiot nire buruari
Eta beste batuetan, galdera gutxiegi.
Zaila da oreka bat bilatzea, baina are zailagoa aurkitu ostean hari eustea.
Beti eragozpen piloan topatzen dut
benetan egin nahi ditudan gauzak betetze aldera; baina ez du konponbide onik.
Ez dakit zeri buruz hitz egin baina hala ere zerbaiti buruz hitz egiten tematzen naiz;
temati bat naiz, txo temati horietako bat.
Gauza handiak esateko jaio dira batzuk;
eta beste batzuk jaiotzeko, besterik ez (ez da gutxi, benetan). Baina denok hartzen
ditugu gure gain neke handiak; zerbaitek bultzatzen gaitu horrela jokatzera.
Poetika hori da, norbaitek leiho bat irekitzea eta aldi berean beste norbaitek ixtea. Justu
ezinezkoa delako da poesia; bizitzarekin ere berdin gertatzen da; ongi pentsatuta,
ezinezkoa da izatea, eta hain zuzen horregatik *da* (ezinezkoa delako). Ez dakit zer esan
nahi dudana,
zeri buruz hitz egin,
baina azkenean badirudi zerbait esaten dudala, zerbaiti buruz hitz egiten dudala, eta aldi
berean, ez da ezer, ezertxo ere ez...

(2009ko apirila)

Beharrezkoa da gauzei mila buelta ematea, azkenean ezer berezirik ez dagoela ondorioztatzeko; holaxe gertatzen da askotan, bai... Ohitzen gara arrunkeariara, edo bestela, bizkar ematen diogu, ostrukak bagina bezala: ikusten ez duzunak ezin dizu minik eman. Jolas zaharra da, gizakia bezain. Baina, honako hitz hauek, sotilak dira, ia-ia *lauak*... Ez doaz inora, ez dute helbururik, asmorik... Eguna amaitzen denean, lotara joango naiz, ametsetan jarraituko dut hasitakoarekin, jolasa osatu arte, puzzlearen azken pieza jarri arte, edo... korapiloa askatu arte. Azkeneko hau da gehien erakartzen nauena, batez ere jakin badakidalako korapilo bat askatzeak berekin beste korapilo bat dakarrela. Dena da oso *korapilotsua*. Hitzak berak dio... Ez da nire errua. Egiatapen zailak eta egiatapen errazak daude. Gizakiekin ere berdin-berdin gertatzen da. Baina poema honek gizakia ez du helburu. Gizakiok beti uste dugu ideia, asmo eta xede guztien helburu garela; beharbada, gure izaera benetan zirtzila onartu beharrik ez izateko... Nork jakin... Bestalde, normala da ezdeusak berataz uste handia izatea. Agian, horregatik asmatu genituen jainkoak, gure burua haietan islatzeko, “Jainkoak gizakia egin zuen bere eitean eta beraren antzo”. Gu geu. Beti, horrelakoetan, gu geu agertzen gara, gure patu ezdeusa, gure onartu ezina... Ezertarako jaiok gara.

(2009ko apirila)

Transzendentalak izateko daukagun mania hau ezin da ona izan, eta ezin digu ondorio onik ekarri. Ez dago esateko ezer. Iturria agortu da. Bazen garaia. Orain, atsedean hartu ahal izango dugu. Orain besteak bezalakoa izan ahal izango gara. Lehen ere baginen, gutxi gora-behera, baina... Nor zaren esatera behartuta zaudela uste duzunean, nahiz-eta benetan beharturik ez egon (nor ote da hainbeste jakiteko bezain jakintsua?), orduan, kasu horretan, horregatik diot zorte handia dela iturria agortzea, hitzik gehiago ezin esatea. Telebistari begira aseko dugu arima; bazen garaia, bai jauna... Hala ere, bati kaskoan sartzen zaio azken txorakeria esatea, azken bertsoa edo azken lerroa idaztea...

Ez dakit, hain kitzikagarria da... Gertaera bat da, gertaera xume-historiko-intranszendental bat... Barru-barrutik sortzen denean, behintzat. Aldiz, onartu beharra daukat: ez daukat arrazoirik. Hitz egiteko. Hau luzatzeko. Pantomima ote da...? Denok ez ote gara gure nahiaren aurka bizi dugun pantomima baten protagonista patetikoak?

Eta hala balitz, nork idatzi digu gidoia? nor da gure “egilea”? Ufa, galdera “transzendentalak jarri ditugu dantzan, jaun-andreok, hau bai mahuka ederra, sarrera ordaindu gabe diskotekan sartzea bezala, eta denen aurrean strip-tease bat egitea, gure biluztasunak agerian uzteko. Biluztasunaren egarri direnek eskertuko digute (baina soilik egarria hil arte; gero gorrotoa hartuko digute, horrexegatik hain zuzen...)

(2009ko apirila)

Gau zirtzilean begiak ezin batuz,
galdu dut loa, enetxo, zutaz pentsatuz”.
Halako batean haizea iritsi da;
zure oroitzapena utzi dit ate aurrean:
“zerta’ko ekarri duk jada eduki ezin duana?”
Galdegin diot etsita bezala,
ta haren erantzuna: biluts andana bat,
aurpegian lehertu zaidana.
Atea itxi dut, zure oroitza barrun zela;
eseri naiz sutondoan, kopetilun antzean.
Kanpoan haizeak barre egiten zidan,
haren garaipena ezin dudan jar.
Asteak igarota, Udaberri heldu da,
orduak nik bai barre Agure Gordinaz.
Amorio zaharrak berritu-nahia
kementsu hasi zait, ohiko aldarrikan:
*“oi neskatxa maite,
sar idazu arantza ahal den sakonena
neguko egunak dira zinez luzeak
ahantziaren ordezt nahiago nik mina,
berotzen didana sutondoak adina”*.

(2009ko apirila)

Agur, ene maitea
banoa korrika
ardoa ahaztu zait
amorantenian,
agian helduko naiz
garai onean
besteren batekin
agortu gabea.

Botila hura nuen maite
beste ezer ez bezela,
erreserbatuta neukan
gu biontzat, Maite;
86ko ardo ahaztezina
amodioa bera
bezain hordigarria.

Agur eta ohore,
ardoa gozo horri,
zutaz oroituko naiz
bizi naizen artean,
burtsa baino inbertsio
hobea izan zinena,
balore segurua,
ustekaberik gabea.

(2009ko apirila)

Aurkitzen garenean han-hemen botata,
arratsaldean, denetaz ahaztuta,
Harekin elkartzeko pozean,
eskuko eskailera izkina batean,
airea bero, lodi eta ia arnasaezina;
hodeiak dardarka igarotzen direla,
eguzkia gero eta dirdaitsuagoa,
Ariane izeneko emakume bat guri begira,
auskalo gutako zein aukeratuko duen,
eta halako batean ahots bat,
isiltasunean negarrez ari dena,
emakume heldu, zahar edo haur batena ote den esan ezinez, itsasontzi bat bezala
zabunkatzen den ahots-soinu erritmiko batez hipaka, zotinka, munduaren bestaldetik
etorriko bailitzan, edo handik etorri nahian behintzat,
inor ez da hitz egiten ausartzen,
bakardadea bakardadearen aurka,
emakume gazte baten ahotsa da,
orain ziur gaude, Ariane deritzon bezain ziur ez ordea, baina horrela daude gauzak,
orduan ate aldera jotzen dugu, larrimin horretatik askatzearren, agian, baldin-eta...;
halako batean, ispiluan topatu dut nire irudia, tristea, zaharkitua, lainotsua eta apur bat
dardartsua, eta saiatu naiz nire izena ahoskatzen: Ariane...
Baina ez dut lortu.

(2009ko apirila)

Gutaz trufatzen den gertaera bat, hortxe, aske, norbaitek apropos utzita, zegokigun zigorretik hain erraz libratuko ez garela ahantz ez dakigun.

Iradokizun huts diren mehatxuak, hitz baten formaz helaraziak, beharrezkoa izanik ekonomizatzea...Hemeretzian bizi ginen, hemeretzigarren atarian, kale itxuraz arrunt batean, non jende arrunta bizi baikinena (zer da arrunta izatea...?)

Ezagutzen ez dugun jendeari agur esan behar diogu eskaileran elkar topo egitean. Eskailera estuak dira, igogailurik gabeak. Isiltasun-arrasto bat bere atzean uzten duten agur-hitzak, arrenkura ezkutatu ezin dutenak, heziera ona gorabehera. Badirudi lur-biraren gainean zerbait gertatuko dela. Baina... atzokoa bezalako egun bat da, ez hobe ez txarragoa, harri baten solemnitater berberaz igaroko den egun bat, bide-zidor osoan lagunduko diguna, baita luxuzko etorbideetan ere.

Ez dago ihes egiterik, hodeien antzeko diren patuei. Ibai-bazterrean, ibiltaria agertzen da une batez, eta segituan berriz ere desagertzen. Txakurrak zaunka aritzen dira urrutiko baserrietan (baserri-mamuak ote dira...?). Gaueko hotza barrura sartzen zaigu, parking batean aparkatuta geneukan autoaren barrura. Esna gaude ordurako. Dena (mundua) berriro hastera doa.

(2009ko apirila)

Hemen dagoen jende guzti hau,
eta hementxe betidanik iraun duena...

Gezurra dirudi...

Ni ez nintzateke gai izango horren luze irauteko, leku berean beti, arima berean beti
ere...

Aldatu beharra daukagu. Eraldakuntza, metamorfosia, ona da, beharrezkoa da. Zeren ez
baikara ogia jatetik soilki bizi...

Beste gauza batzuk badaude. Hau da...

Ez dakit... Zer esan dezaket? Gustatuko litzaidake mundu guztiarentzat irtenbideak
izatea, baina lagun bakarreko ontzietan nabigatzen dugu, eta ontzia hondoratzen denean
edota beharrezkoa denean erabaki bat edo beste hartzea... hor konpon, marianton!

Elkartasunak bere mugak ditu. Muga fisikoak (ez bakarrik muga subjektiboak).

Zailenak gaingaitzen, apurtzen. Hementxe jarrai nezake hil arte, baina zerbaitek
bultzatzen nau alde egitera, eta alde egingo dut. Laidogarria, lotsagarria izango naiz,
bere umeak abandonatzen dituen emakumea/gizona bezain. Baina... zer egin dezaket?

Maileguan eman zaidan bizitza bat baino ez daukat. Nire jabetza guztia da arnasten
dudan aire hau. Hemen nago, beste nonbait egon nintekeen bezala... Hau ez da gertaera
absurdu bat, hau egitate (errealitate) absurdu bat da, mila bider egiaztatua, berretsia,
izenpetua... oka egiteraino.

(2009ko apirila)

Maisu handiengan inspiratuta

Pottottorro pottottorro puttuturruruuu!
O pottottorro maitteaaa puttuturruruuu!
Faroladiaren gainean, oi zeinen urrun,
Gauaren bestaldean.

Pottottorro pottottorro puttuturruruuu!
O pottottorro maitteaaa puttuturruruuu!

Ufa, ufa, ufa!

I, i, i, i, i!!!!

Pottottotzar, pottottotzar, pututurrutto!!
Oi pottottotzar, pottottotzar, pututurrutto!!!

Bo, bo, bo!

Ufa, ufa, ufa...!

Etorkizunaren oraina ikusten dut
(edo Tele 5 ote da...?)

Pottottorro pottottorro puttuturruruuu!
O pottottorro maitteaaa puttuturruruuu!

(2009ko apirila)

Giza adimenari buruz

“Adimena hilda gizakia hobetzen da”;
urka gaitzen, maitea, ahalik lasterrena.
Adimenaren emaitzak ikusita, hobe, enea,
lehenbailehen amaitzea antzerki hau.

Gizakirik azkarrenak “Asto” zuen izena,
zoritarrez desagertzen hasi zan
joan den XIX. mendean geroztikan:
baten bat gelditzen da *** aldean!

Bonba nuklearra dugu beste perla eder bat
piztiengandik noraino garen bereziak
ikusi nahi duenari e'rki erakusten diona;
tximinoa gure aldean, Grezian da ikasia.

Giza adimenaren beste adibide on bat
ikusi nahi duenak agintzen gaituztengana
jotzea baino ez dauka, beldur ez bada
hortzak galtzen, ha'en *dentista treben* eskutan.

Igandea da-eta hobe isilduko naiz
ez da ona gogoz kontra ostiak hartzea;
“palomitak”, “gusanito'k”... aski dira,
federa bueltatzeko izango dut astia!

(2009ko apirila)

Lotsaizunak

Ez ote da berdin gaur zein bihar hiltzea?
“Niri tokatzen ez bazait, bai, behintzat”.

Seme-alabak izatea ez al da gauza ederra?
“Zuk hazten badituzu, niri igual-igual”.

Txiroa ez ote sosduna baino aberatsagoa?
“Txirotasuna demaizut, sos batzuen trukean”.

Bekatu larriekin joango al zara zerura?
“Ostatuz ostatur ibiliko naiz”.

Bat egingo duzu goi-agintariekin?
“Ez dut Infernuko muga igaro nahi”.

Oraindik nesken atzetik hartzen duzu neke?
“Badakizu, txerriak beti ezkurra amets”.

Ardoari diozun grina uzteko asmorik...?
“Laurogei urterekin? Gazte naiz oraindik!”

Baina, Xabier, noiz pentsatu duzu zentzudun bihurtzea?
“Ura ardo bihurtzen ikasi ondoan!!

Trialara-lara-lara, trialara!

“Ura ardo bihurtzen ikasi ondoan!”

(2009ko apirila)

